

IKUSMIRAN 19

Botere sindikala II 2016-2023

Jendarte, lan merkatu, lan-harreman
eta botere sindikalaren azterketa

2024ko azaroa

19

Ikusmiran 19 | 2024ko azaroa

Jendarte, lan merkatu, lan-harreman eta botere sindikalaren azterketa

(Botere sindikala II: 2016-2023)

Aurkibidea

Sarrera	5
Azterketaren ondorioak	6
BEGIRADA BERRITU EUSKAL SINDIKALISMOA ETENGABE ERABERRITZEKO	6
BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA DEMOGRAFIKOA	19
ATALAREN LABURPENA	26
BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK LAN MERKATUAREKIKO	27
BIZTANLERIAREN BARRUAN, AKTIBOAK VS EZ-AKTIBOAK	30
AKTIBOAK	32
AKTIBOEN BARRUAN, OKUPATUAK ETA LANGABEAK	33
SOLDATAPEKOAK	36
ATALAREN LABURPENA	38
ENPRESA DEMOGRAFIA	39
ENPRESA EGITURA ETA DINAMIKA	39
ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA	41
ATALAREN LABURPENA	44
LAN GATAZKAK ETA AKORDIOAK	45
GREBA ETA PATRONAL ITXIERAK	45
LAN HITZARMENAK	49
ATALAREN LABURPENA	56
HAUTESKUNDE SINDIKALAK	57
ATALAREN LABURPENA	62
AFILIAZIOA	63
AFILIAZIOAREN EZAUGARRITZEA	63
ATALEKO LABURPENA	66
SINDIKATUEKIKO ATXIKIMENDUA	67
ATALAREN LABURPENA	69
LABEKIKO ATXIKIMENDUAREN ARABERAKO IRITZI SOZIALAK	70
IRITZI SOZIAL ETA SOZIOLABORAL OROKORRAK	71
ATALAREN LABURPENA	73

Sarrera

2016an kaleratu genuen azterketa eguneratzeko eta, ordutik hona, egondako eboluzioa behatzeko xedez abiatu genuen azterketa. Euskal Herriko eragilea garenez eta LAB sindikatua Euskal Herria osoko eta Euskal Herria osoan jarduten duen sindikatu bakarra izanik, azterketa eremu horretara egokitu nahi izan genuen. 2016ko aipatu azterketan eta bestelako azterketetan gertatu izan zaigun moduan Ipar Euskal Herriko aitortza nazional ezak eta instituzional oso eskasak gure herriko lan-harremanen eta sindikatuen ordezkaritza errealearen gaineko informazio ofizial publikoa ez egotea ekartzen dute. Hau salatzeaz ez gara nekatuko eta muga hori gure praktikan gainditzeko egunero lana egiten badugu ere, azterketa serio bat planteatzeko garaian soilik kontrastagarriak diren egoerak eta informazioa ekarri dugu orriotara. Horregatik, Hego Euskal Herriko jendarte, lan merkatu, lan-harreman eta botere sindikalaren azterketa da esku artean duzun hau.

Erabili ditugun iturriak hauek dira:

- INE: Espainiar estatuko estatistika institutua. Errolda jarraituaren estatistika, EPA (Espainiar estatuko populazio aktiboari buruzko inkesta) eta DIRCE (enpresen direktorio zentrala)
- Espainiar Estatuko Lan eta Ekonomia Ministeritza: Greba eta Itxiera Patronalen inkesta eta Hitzarmen Kolektiboen estatistika
- Lan Harremanetarako Kontseilua (Eusko Autonomia Erkidegoa)
- Espainiar Estatuko Diruzaintza Nagusiaren datuak
- Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuak. Hauteskunde Sindikalak.
- Ipar Hegoa Fundazioa eta LAB sindikatuaren informazio propioa
- Aztiker Ikergunea eta Ipar Hegoa Fundazioa: Hego Euskal Herritarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak. 2023
- Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza). Soldata-arrakalak eta genero-arrakalak lan merkatuan 2021, Kultura demokratikoa 2023 eta Euskal Soziometroa 82, 2024

2016an aztertu genuen artean bizi zen egoera zehatza eta horretara iristeko ibilbidea zein izan zen. Oraingoan XXI.mendeko ikuspegia hartuko badugu ere, hainbat gaitan 2016tik honako bilakaera jarriko dugu fokoaren pean. Izan ere, espainiar estatuan lan erreforma eta negozio kolektiboaren erreforma ezarri zituztenetik 2023rako tarteak, erreforma horien eraginaren eta sindikalismoaren ahalmenaren neurria hartzeko balio diezagukete.

AZTERKETAREN ONDORIOAK

BEGIRADA BERRITU EUSKAL SINDIKALISMOA ETENGABE ERABERRITZEKO

2014. urtean LAB sindikatuak sindikalismoa birpentsazeko prozesu politiko eta organizatibo bati ekin zion. Gure intuizio eta azterketek sakoneko aldaketak iragartzen zizkiguten. Izan ere, 2008an lehertutako krisi finantziarioak eta, batez ere, horri aurre egiteko Europako, estatu espainiar eta frantseseko eta EAEko eta Nafarroako insituzio eta gobernuek (bakoitza bere erantzukizun eta ahalmenetik) ezarritako erreformek eta neurriak euskal langileen eta sektore herritarren bizi eta lan baldintzen eta eskubideen aurkako eraso zuzen eta bortitza izan baitziren.

Enpleguan gero eta hedatuago zegoen prekarietatea eremu guztietara zabaldu zen. Eta bizitzaren eremu guztiek murrizketen, pribatizazioaren eta prekarietatearen eragina bete-betean jasotzen zutela ikusi genuen. Krisira eramanez gintuen ereduaren sakontzeari borroka ziklo luze batekin erantzun genion, baina gure burua testuinguru berriari ekiteko prestatu genuen ere.

- Langileak atomizatzeko estrategiak eta sindikalismoa ahultzeko estrategiak genituen aurrean. Negoziaketa kolektiboa estatulizatu zen batetik. Estatuko sindikalismo nagusiaren paktismoaren eta konfrontazio ezaren bidez euskal langileei bere hitzarmenak negoziatzeko eskubidea ukatu eta estatuko baldintza kaskarragoak inposatzeko bidea zabaldu zuten. Eta, halaber, gero eta langile eta kolektibo gehiago gizarte segurantzako erregimen orokorretik kanpo kokatzeko joera errazten ari zela ondorioztatu genuen.
- Krisi ekologikoak eta zaintzaren krisiak sakoneko aldaketa ekonomiko eta sozialen atarian geundela erakusten ziguten. Lan guztien banaketa justua eta jarduera ekonomiko eta sozialen trantsizio ekologiko bidezkoa behar dugula eta sindikalismoak eragile izan behar duela erabaki genuen.
- Gure burua berrikusi eta sindikalismo antirrazista baterantz joan behar dugula erabaki dugu gerora. Pertsona migranteen etorrerak aspaldiko behar horri lehen mailako garrantzia politikoa eman diote.
- Sindikalismoa soziopolitikoaren garrantzia azpimarratu genuen eta euskal langileen kontrako erasoaren jopuntu nagusia geure erabaki ahalmena eta markoa zegoen maila eskasetik hutsaren hurrengora eramatea izan zen. Sindikalismo abertzalea ahultzeko eta langile borrokarako eremu propioa desegin nahian, horiekin langileak ahultzen eta kaltetzen zituztelako. Ikuspegi burujabe eta nazionala eta sindikalismo independentistaren beharra agerian geratu da.
- Populazioaren zahartzeak eta pentsio publikoen kontrako erasoak helduen eta pentsionisten esparrua antolatzeak eta borroka eremu bilakatzeko beharra erakutsi ziguten.


XXI. mendeko euskal sindikalismoa [Bir]Pentsatzen eta eraberritzen jarraitzen dugu.

1. JENDARTEAN SAKONEKO ALDAKETAK EKARRI DITUZTEN PROZESUAK EMATEN ARI DIRA.

25 urtetan Hego Euskal Herriko populazioa handitu egin da. 2,9 milioi pertsona bizi gara Hego Euskal Herrian eta 1998an baino %9,2 gehiago gara. Hazkunde piskanakakoa eta sustengatua izan da. Gure herriko demografian ematen ari den bilakaeran azpimarra bi gairi egin nahi diegu:

- Populazioaren zahartzea oso modu ikusgarrian eta nabarmenean ematen ari da. Esan dugun bezala, 1998tik 2024ra 277.000 lagun gehiago daude Hego Euskal Herrian. Baina, datu horren aurrean beste bat jarri behar dugu: 64 urtetik gora dituzten pertsonen taldeak ia 210.000 lagun irabazi ditu epealdi berdinean. Hurrengo urteetan zahartze hori oraindik eta ikusgarriagoa izango da. 40-64 urte dituztenen artekoak dira adin talde handienak egun Hego Euskal Herrian.

ADIN PIRAMIDEA- HEGO EUSKAL HERRIA 2024




Iturria: INE. Errola jarraituaren estatistika.

Esan gabe doa adin talde horiek (40-64 urte artekoak) direla enplegu kopuru handienak pilatzen dituztenak, eta soldata hoberenak dituzten enplegugehien kontzentratzen dituztenak. Populazioaren zahartzeak baloratzeko eta aztertzeak ondorio asko izan ditzake, baina gure ikuspegia Euskal Herriaren bideragarritasunean eta euskal herritarren bizi baldintzen duintasunean ipini nahi dugu. Pentsionisten kopurua gorantz doa eta, esan gabe doa, herritarren pentsio publikoek eraso ugari pairatu dituzte azken hamarkada hauetan. 2008tik hona, eta krisiaren aitzakipean, pentsio sistemaren erreforma gogorrak pairatu ditugu. Sortzen den aberastasunaren banaketa justoago batean begirada jarri baino, pentsio sistemaren ahultzean, murrizketan eta pribatizazioan jarri dira xedeak. Euskal Herriko pentsio publikoen sistema baten faltan, euskal sindikalismoarentzat arreta puntu garrantzitsua izan behar du bilakaera demografikoak erakusten diguna eta erronka sindikala dugu Euskal Herriko pertsona heldu guztien bizi baldintza duinak bermatzeko. LABek Euskal Herria osorako pentsio sistema publiko eta propio baterako proposamena luzatu du 2024ean, aurrera urratsak egin beharraren eta sindikalismoaren erantzukizunaren isla gisa.

- Estatutik kanpo jaiotako pertsonak populazioaren portzentaje esanguratsu bat dira egun Hego Euskal Herrian eta hori azken 25eko zikloan gertatu da. 1998an Hego Euskal Herrian (ofizialki) bizi ziren estatu espainiarretik kanpo jaiotako kopurua portzentaia txikia zela esan dezakegu: 19.511 pertsona (populazioaren %0,7). Baina, 25 urteren buruan, 2024ean 258.092 dira (populazioaren %9). Aldaketa esanguratsua da eta, zahartzeak bezala, gure bizi eremuan denetariko eraginak izango ditu.

ESTATU ESPAINIARRETIK KANPO JAIOTAKOEN KOPURUAREN BILAKAERA, HEGO EUSKAL HERRIA. 1998-2022



Iturria: INE. Errola jarraituaren estatistika.

Alabaina, migranteen etorrera horrek (zahartzeak ez bezala) izan ditu gorabeherak. 2012tik 2016ra jeitsiera nabarmena eman zen, egoera sozioekonomiko eta laboralarekin sintonian doan datua. Krisi ekonomikoak eta horren aitzakiaz ezarri ziren murrizketek, lege aldaketek eta politikek enplegua suntsitu zuten Hego Euskal Herrian eta, enplegurako aukerarik ezean, migranteen etorrera eten egin zen eta beren jaioterrietara edo beste herrialde batzuetara alde egiten hasi ziren ere. Honek zuzenean konektatzen du pertsona migranteen etorrera lan egiteko asmoarekin eta aukerarekin.

Euskal Herrira datozen pertsona migranteen gehiengo handi bat 16-64 urte artekoa da, lan egiteko adinean eta lan egiteko asmoz datorrena da talde hau. Kontutan hartu behar dugu bertan erroldatuta ere datu hauetan agertzen direnen (eta egoerak behartuta errolda ere lortu ez dutenen) lana ere. Izan ere, kontraturik gabe (eskubide aitorturik gabe) eta baldintza oso eskaseta ehunka pertsona migrante daude gure herrian.

Hau horrela izanik, espainiar estatuko Atzerritarren Legearen eragin bidegabekoa bereziki salatu behar dugu. Lege hau pertsona migranteen etorrera zailtzeaz eta kriminalizatzetik gain, lan merkatuan kontraturik gabe edo lan baldintza kaskarragoetan sartzeko tresna juridikoa da. Sozialki beharrezkoak diren lanak egitera datozen pertsonak lan esku merkea bilakatzeko etorbidea zabaltzen du prozedura horrek. Eta, bidez batez beste langile guztien baldintzak kaskartzeko aitzakia ere bilakatzen dute. Pertsona migranteen kontrako diskurtso xenofobo eta arrazista (delikuentziarekin lotuz kolektibo oso bat, jendartean eta lan munduan bere lekua hartu dutenean) bete-betean sartu den honetan, sindikalismoaren eguneratzean LAB sindikalismo antirrazistan urratsak egiteko prozesua garatzen egotearen erabakia azpimarratu nahi dugu. Migrazio politiketan, zeinetan ez dugun burujabetzarik eta estatuetatik aplikatzen zaizkigun, joera arrazista eta isolatzailea nagusituko dela dirudi. Aldiz, patronalen diskurtso esplotatzaileak (migranteek etorri behar dute, baina bakarrik eurek "behar" dituztenak) dira politika horiek doitzerakoan eta diseinatzerakoan entzuten ari diren bakarrik botere insizionala.

2. JENDARTEAN EMAN DIREN ALDAKETA HORIEK BERAK DIRA LAN MERKATUAREN ALDAKETAN IKUS DITZAKEGUNAK: ZAHARTZE OBJEKTIBOA ETA MIGRANTEEN PRESENTZIA ESANGURATSUA LAN MERKATUAN.

Lan merkatuak azken urte hauetan izan duen egiturazko bilakaera aztertzerakoan asko dira azpimarra merezi duten puntuak, nahiz eta esan bezala, jendartearen baitan ematen ari diren prozesu demografikoek izan inpakto bereziena. Lan merkatuaren ezaugarri egiturazkoak, ordea, badira ere beste batzuk.

Lehenik eta behin langabeziaren auzia ekarri nahi dugu mahai gainera. Langabezi tasa bajuak dauzkagu egun Hego Euskal Herrian, populazio aktiboaren %9,09 (populazio osoaren %4,4). 2008ko krisiaren bueltan kopurua hauek oso gora etorri baziren ere azken urtetan %10etik behera dugu langabezia Hego Euskal Herrian. Kopuru horiek, ordea, ez datoz bat bizi baldintzetan topatzen ditugun kaskartze zantzu garrantzitsuekin, bestelako ikusmiran azterketa batzuetan adierazi izan dugun bezala. Enplegua izatea, egun, ez da pobrezia saihesteko berma, hain da handia prekarietatearen eragina eta kezkatzekoa enplegu berriaren kalitatea.

- 2022ko udazkenean aztertu eta argitara eman genuen bezala, 25 eta 64 urte arteko populazioaren %53,52 egoera prekarioan bizi da diru sarrera nahikoa eta duinei erreparatzen badiegu.
- Era berean, pentsiodunen %34,2k 1000 eurotik beherako pentsioa jasotzen zuen une horretan. Ezin izan genuen 1200 euroko langaren arabera kalkulatu egiteko aukerik izan, baina pentsa daiteke pentsiodunen erdira gerturatuko zen portzentaje batetaz ari ginela.
- Beraz, langabezi tasa bajuak aberastasunaren banaketa bidegabe bat ezkutatzeko erabiltzen diren bitartean, prekarietateak ehunka milaka langileren (landun eta langabe) bizi baldintzak erabat kaskartu ditu.

Lan merkatuaren bilakaeran aldaketa eta bilakaera hauek izan ditugu aztergai:

- 45-64 urtearteko langileak, gizon eta emakumeak, dira lan merkatuan proportzionalki handitzen diren taldeak. Enplegatuen artean zahartze objektibo eta potentia dago. Jendartearen zahartze orokorraren barnean, erretirotik gertu dauden adin taldeak dira handienak. Esan bezala, hainbat enplegutik ordezkapena modu masiboan egiteko garaiak bizi ditugu edo biziko ditugu etorkizun hurbil batean.

Aipamen berezia merezi dute 55 urtetik gorako langile multzoak. Bi aspektutan egin du nabarmen gora talde honek azken 25 urtetan. Batetik, enplegatuen artean bere pisua asko handitu da: %10etik %23ra pasa da 2022tik. Populazioaren zahartzearen ondorio zuzena da. Eta hurrengo 10-12 urtetan gaur egun enplegua duten 5 langiletik 1 jubilatua egongo dela aurreikusi behar dugu.

Bestetik, aztertu behar dugu ere adin talde horretan enplegua galtzen duenak nolako zailtasunak dituen berriro ere enplegatua izateko. 2002an 55 urtetik gorako %5,3 bakarrik zegoen langabezia egoeran. Egun, aldiz, %18,8a. Adin altuetan behin enplegua galduta oso zaila gertatzen ari da langile horiek lan baldintza egokitan lanpostu berri bat lortzea eta adin talde honen langabezi tasa oso altua da.

- Estatu espanyoletik kanpo jaiotako langileen kopurua handitu egin da eta horietako gehienak lan merkatuan aktibo daude, %10 izatera iritsi direlarik dagoeneko. Atzeritarren Legeak lan baimena hainbat urtez ukatzeko (ezkutuko lanera, eta beraz erabat prekarioa den lanera behartuz) duen funtzioa batetik, eta hamaika herrialdeetatik datozen langile horiek jatorrian dituzten titulazio eta kualifikazio mailak ez aitortzeak enplegu kaskarragoetara derrigorrez eramateak beste batetik, langile migranteak lan esku merke izatera kondenatzen ditu milaka lagun. Zeharka, beste langile guztien lan baldintzak merketzeko efektua ere bilatzen dela salatu behar dugu.

- Prestakuntza maila gure jendartearen ezaugarritzea aldatzen ari da. Lan merkatuan inpaktua du ikuspegi ezberdinetan:


- Prestakuntza maila handia duten langileen kopurua handitu egiten da. Azpimarra berezia merezi duen datua da 16 urtetik gorako populazioan goi mailako prestakuntza duten emakumeen portzentaia %17,6tik %21,9ra igaro dela. Aldiz, 16 urtetik gorako populazioan, goi mailako prestakuntza duten gizonen pisua %18,1etik %20,7ra igaro da. Emakumeen artean gorakada ikusgarria da azken hamar urtetan.

- Aktiboak direnen artean epealdi horretan (2014tik hona), goi mailako ikasketak dituztenen portzentaia %49,2tik %57,3ra igo da.

- Zalentzarik gabe, prestakuntza honek enplegu perspektibak aldatzen ditu, langileok gure kualifikazioari lotutako enpleguak eta lan baldintzak bilaten ditugulako, beste aukerak baztertuz.

- Emakumeek egoera inaktiboan egotetik aktibo egotera urratsa egin dutenen artean gehiengo dira. Lan merkatuan sartzeko urratsa nabarmena izan da. Populazio aktiboaren baitan 2006an %42,5 zen emakumea eta egun, aldiz, %47 dira. 20 urtetan okupatuak %38 izatetik %48n izatera igaro dira, ia erdia izateraino. Emakumeen artean langabeziak ere behera egiten du, nabarmen, baina gora eta behera asko izaten ditu, aldizkako lanetan eta enplegu estazionaletan duen pisuagatik.


AKTIBOAK ETA EZ-AKTIBOAK SEXU-GENEROAREN ARABERA. HEH, 2006-2023



Soldatapekoen kopurua 230.000 lagunetan handitu da azken 20 urtetan (900.000tik, 1.131.000ra). Urte horien artean populazioa hazi denaren pareko kopuruaz ari gara hizketan. Ezaugarri zehatzak izan ditu hazkunde horrek:

- Hazkundearen protagonista nagusiak emakumezkoak izan dira, soldatapekoen artean %12ko hazkundea izan baitu bere proportzioak, soldatapekoen erdia izarteraino (%49). Sektore publikoan (+%6,1) eta pribatuan (+%5,5) eman da hazkundea.
- Okupatuaren artean esaten genuen bezala, soldatapekoen artean ere 55 urtetik gorakoen proportzioak hazkunde nabarmena izan du. %8,2 izatetik %20,7 izatera pasa dira. Gazteek askoz leku gutxiago dute soldatapeko lanean gaur gaurkoz: %10,5 izatetik %6 izatera pasa dira. Soldatapekoen artean zahartzea ere begien bistakoa da.

SOLDATAPEKOAK ADINAREN ARABERA. HEGO EH, 2002-2024



Enplegu industrialaren galera modu jarraituan ikus dezakegu azterketa honetan. 2008ko krisiaren hasierako %27,2ko tasa batetik %22,8ra pasa da enplegu industrial. Seguruenik, kontzeptu hauek berrikusi behar dira halere, Zerbitzuen atalean zer enplegu sartzen dugun zehazteko (zerbitzu aurreratuak industria gisa kontsidera baititzakegu), baina ehun eta enplegu industrialaren galera ukaezina da. Zerbitzuen kapituluaren sartzen den soldatapeko enplegu pribatuaren proportzioa %72,3 heldu da.

- Behin behinekotasunak emakumeei eragiten die gizonei baino gehiago. Urte hauetan guztietan behin behineko egoeran dauden erditik gora izan dira beti emakumeak eta orain %57an dago bere proportzioa. Egiturazko egoera honek emakumeen eta gizonen enplegu ezberdintasunaren pista ematen digu, zaintza lanen zama prekarioagoak diren enplegu horiei lotuta baitago sarri.

Hego Euskal Herrian enpresa txikiak dira gehien gehienak. Enpresa guztien %90,6 langiletik beherakoak dira.

- Horietan, enpresa txikietan, langileen %24 enplegatzen da.
- 49 langiletik beherako enpresa guztiak zenbatuko bagenitu, Hego Euskal Herriko enplegatuen %58a hor dagoela ikusiko genuke.
- Enpresa handiak dira gehien hazten ari direnak urtez urte, eta zenbat eta handiago orduan eta hazkunde proporzional gehiago daukate. 100 langiletik gorako enpresetan enplegatuen %30,8 dago.
- Enpresen 3/4 zerbitzu enpresak dira.
- Enpresa kopuruak behera egin du eta galera hori sektore guztietan eman da, baina bereziki nabarmena da industria eta eraikuntza sektoreetan.


3. MARKO JURIDIKOAK LANGILEEN LAN ETA BIZI BALDINTZETAN ERAGINA DU. LAN HARREMANEN ESTATALIZAZIOAREN BIDEZ EUSKAL LANGILEEN POBRETZEA EMAN DA.

Lan-Harreman esparruan aztertzeke hartu dugun epealdiak bete betean hartzen du Zapaterok eta Rajoyk egin lan eta negoziaketa kolektiboaren erreformen aplikazio epeak: lan harremanen estatalizazioaren garaia.

Hego Euskal Herrian lan konfliktibitatea handia bizi izan dugu azken hamarkadan. Krisi ekonomiko ezberdinen aurrean hartutako neurri politiko eta patronalei aurre egin behar izan diegu. Izan 2008ko krisi finantziario sakona, edo Covid-19aren kudeaketaren ondorengoa, Ukrainako gerraren inflazioaren ondokoraino. Gehienetan langileen eskubideen eta lan baldintzen ikuspegi defentsiboz, nahiz eta batzuetan erantzun zabal horiek eraldaketa sakoneko ikuspegitik izan duten ere (zerbitzu publikoen hobetzearen alde egindakoak,...). Sindikalismotik, LABetik bereziki, langileen lan baldintzen aldeko jarrera aktibo eta borrokalaria gailendu da azken urte hauetan ere.

Hego Euskal Herrian egiten diren greben intentsitatea (10.000 soldatapeko greba kopurua eta parte hartzaile kopurua) Espainiar Estatuarekiko oso handia da. Grebek krisiei aurre egiteko garaietan gehiago eman dira, baina ez da berdina gertatu estatuan. Tasa horren arabera (deituriko greba kopurua 10.000 soldatapeko) estatuan pikorik altuena 0,71ean egon da urte hauetan. Hego Euskal Herrian pikorik bajeuna aldiz 2,13an (altuena 4,66an), baina azken hau aldakortasun handiarekin krisien inpaktoaren arabera. Parte harturiko langileen proportzioan ere alde nabarmena dago, eta Hego Euskal Herrian intentsitatea (2014-2016 eta 2020-2021) jeisten denean hurbiltzen dira bakarrik.


GREBA KOPURUA 10.000 SOLDATAPEKO BAKOITZEKO, HEGO EUSKAL HERRIA ETA ESPAINIAR ESTATUA, 2008-2023



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Herrialdeka, intentsitate handiena Araban izan dugu 2008-2017 epealdian. Gero Gipuzkoan eman ziren gehien piko batzuetan (2018-2020 eta 2022an) eta Bizkaian ematen dira intentsitate gehiagor 2021ean eta 2023an. Greba kopuruan (10.000 soldatapeko), parte harturiko langileen proportzioa kontutan hartu gabe, ia mapa berdina ateratzen zaigu (2021eko salbuespena).

GREBA KOPURUA, HERRIALDEKA, 2008-2023.



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Greba horietan (10.000 soldatapeko proportzioko tasa), parte harturiko langileen intentsitatea Hego Euskal Herrian askoz handiago da, eta bakarrik hemen jeisten denean intentsitatea ia parekatzen da.


Lan hitzarmenen sinadurari dagokionean, 2023an 2006-2008 epealdian zeuden erregistro batzuk berdindu dira urtean sinatzen diren hitzarmenek eragiten dieten soldatapekoen proportzioari dagokionez. 2023an soldatapekoen %37ri eragin zieten sinatutako hitzarmenek (2020an ere, baina pandemiarekin berriz ere oso behera joan zen hurrengo urteetan).

HEHan soldatapeko langileen %85 hitzarmen kolektibo baten estalpean dago. Kopuruetan 424.000 lagunetaz ari gara (2002ko kopuru antzekoa eta 2008an baino ia 20.000 lagun gehiago). Emakumeen artean, gutxiago dira babes hori dutenak, baina hazten ari da piskanaka (egun, %79an dago).

Hitzarmen horien ezaugarrietan dago, ordea, kezkarako iturria. Estatalizazioaren eragina nabaria da lan hitzarmenetan eta hitzarmen horiek babesten dituen langileetan. Marko juridikoak eragina du eta langileen defentsa efektiboari baino, enpresei eman die abantaila.

- 2012an EAEn erregistratutako hitzarmenek 456.000 lagun babesten zituzten. Erreformen ondorioz (eta eragindako langabezia) kopuru hori 308.000 lagunetara joan zen 2014an (momenturik bajea 2016an izan zen 302.000ekin).
- 2023an kopuru hori 405.000 lagunetara dago, 2012ko kopuruak berreskuratu gabe.
- Estatu mailako hitzarmenek EAEn 125.000 lagun babesten zituzten 2012an. Kopuru hori urtez urte handitzen joan da piskanaka eta egun 170.000 langiletara iristen da. LABetik estatalizazioaren kontrako dinamika sendoak landu baditugu ere, marko juridikoaren eragina handia eta injustoa da. Estatalizazio honek, estatuko lan eta bizi baldintza okerragoak ezartzea ekartzen du langileen pobretze objektiboa ekartzen du. Espainiar estatuan sindikalismotik konfliktibitate eskasa dagoela ikusi dugu eta horrek hitzarmen okerragoetan dauka ondorioa. Estatalizazioaren ondorioz, horrek gero eta euskal langile gehiagorengan dauka eragina.

URTE BAKOITZEAN INDARREAN DAUDEN HITZARMENEN ERAGINDAKO PERTSONAK, ERREGISTROAREN ARABERA. EAE, 2012-2023




Iturria: Guk egina eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lan Harremanen Kontseilua

- EAEn erregistratutakoen artean, sektorekoak kontutan hartuta bien arteko tartea murriztu egiten da. Estatalizazioak eragina izan du: euskal langileen lan baldintzat hemen ez negoziatzeak eta erabakitzeak langile horien pobretzean eragin zuzena izango du.
- Egun, egoera berriz aldatu da eta legeak ahalbidetzen du tokiko hitzarmenen lehentasuna: ekintza sindikalaren momentua da legeak ahalbidetzen duen hori euskal langileen alde gauzatzeko. Bertako negoziazio kolektiboaren bidez Euskal Herriko egoera sozioekonomikoari eta bizi mailari, gehiengo/errealitate sindikalari eta gure herriaren asmo burujabeari erantzun dioten hitzarmenak borrokatzeko unea da.

4. HAUTESKUNDE SINDIKALETAN 2016TIK HONA EGONDAKO EBOLUZIOA OSO POSITIBOTZAT JO BEHAR DUGU LABENTZAT. HAZKUNDE NABARMENA DUEN SINDIKATU BAKARRA DA LAB.

- LABk 1,6 puntuko igoera izan du. Hego Euskal Herriko bigarren sindikatua da %19,6ko ordezkartzarekin. Igoera esanguratsuak dira Gipuzkoakoa (1,4 puntu gehiago eta %29,5eko totalarekin) eta Nafarroakoa (2,8 puntu gehiago)


HEHKO DELEGATU BANAKETA HERRIALDEKA, 2016-2023



Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuetatik abiatuta

- ELAk bere lidergoa mantendu du Hego Euskal Herrian 0,4 puntuko igoerarekin eta %36,2 totalarekin.
- Jasotako boz kopuru metatuaren ondorioz sindikatu gehienok dugun boz/ordezkaritza erlazioa antzekoa da. LAB da duen ordezkartza baino boto gehiago duen sindikatu handi bakarra. %19,6ko ordezkartza eta %20,1eko boto portzentaia. Esanguratsua da ELAren kasua: esan bezala %36,2ko ordezkartza du, baina bozen %31,8a bakarrik jasota.
- 7 urte hauetan ordezkartza sindikalerako eskubidea izan eta eskubidea gauzatu duen langileriaren portzentaia %43,4tik %45,5 era igaro da. Eskubidea aitortua izan baina egikaritu ez duen %41,7 dago oraindik eta eskubiderik ez duen %12,7a. Langileen erditik gora ez du ordezkartza sindikalik Hego Euskal Herrian. Babes sindikal eta kolektiboaren falta izugarri larria dago eta sistemikoa da, 7 urtetan ia aldatu ez dena.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREN BABESPEAN DAGOEN LANGILE KOPURUA, 2016-2023



Iturria: guk egina, LAB sindikatua eta espainiar estatuko Diruzaintza Nagusiaren datuetatik abiatuz


Ordezkaritza sindikala ordezkari demokratikoa da. Are gehiago, instituzionala da. Baina, botere publikoak ez du deus egiten langileek bere eskubideak babesteko ezinbestekoa duen ordezkari legala ezarri dadin. Esanguratsua da sindikatuak Hauteskunde Sindikalak egiteko eskubidea ere borrokatu behar izatea enpresaz enpresa. Eta datu honek erakusten duen bezala, oso zaila da baldintza horietan langileen eskubideen defentsa efektiboa egitea.

5. SINDIKALIZAZIO MAILA HANDIA DUEN HERRIA GARA: POPULAZIOAREN 10TIK 4 SINDIKATU BATEAN AFILIATUTA DAUDE EDO EGON DIRA UNEREN BATEAN.

Afiliazio tasa errealek ezagutzea zaila da, baina estimazioek %13 eta %17 artean kokatzen dute. Gure estimazioak %17an kokatzen du afiliazio sindikala, eta horri beste %22 inoiz afiliatuta egon dela gehitu behar diogu. Tasa esanguratsua da, estatu espainolean eman izan denetik gorago. (kasu honetan konparaziorako eduki dezakegun esparru bakarra, eredu sindikal-insituzionalak hain ezberdinak eta konparaezinak izanik).

- Sindikalismoa gertuago izan zaio gizonezkoiei, baina joera hori aldatzen ari da. Afiliatuago egon dira historikoki gizonak. Hau enpleguan gizonzkoek izan duten pisuarekin (eta emakumeak etxeko eta zaintza lanetara esklusiboki egotearekin) eta sindikalizatzeko aukera gehiago izan dituzten sektoreetan egotearekin erlazioan dago, jakina. Errealitate hori etengabeko eraldaketan dago. Egungo datuei erreparatzen badiugu emakumezkoen eta gizonzkoen artean ezberdintasuna txiki da (2,3 puntu). Beste bi ataletan iere kusten dira genero aldetik ezberdintasunak: afiliatuta egon diren eta gaur ez dauden taldean ia 10 puntuko tarte dago. Eta inoiz afiliatuta egon ez diren artean ia 12koa.


SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, SEXU-GENEROAREN ARABERA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautesmateak eta iritziz sozialak, 2023

- Adinaren arabera aztertzen badugu afiliazioa, ikusten dugu sindikalismoarekin harreman gehiago eduki duen adin taldea 46-64 artekoa dela (%24,9a afiliatuta dago eta %24 afiliatuta egon da. Adin talde horietako populazioaren erdiaz ari gara. 29 urtetik beherakoen artean tasa dramatikoak jeisten da: askoz gazte gutxiago daude gaur egun eta, dauden artean, proportzionalki gutxiago dira afiliatzen direnak.
- Egungo sindikalizazio tasa handienak euskal hiltunen artean ematen da. Tasa txikiena euskara ulertzeko zailtasunak dituztenen artean ematen da.
- Jaiolekuari dagokionean, Espainiako estatuan jaiotako sindikalizazio leialtasuna (sindikalizazioa mantentzen dutenak) da txikiena eta egungo afiliazio tasa nabarmen txikiena.
- Diru sarreraren arabera afiliazioa aztertuta, 1200 eta 3000 arteko multzoetan ematen dira egungo sindikalizazio tasa handienak. Diru sarrera baxuneak dituztenen artean ematen da sindikalizazio baxuena.

SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, DIRU-SARREREN ARABERA. HEGO EH, 2023




Iturria: Hego Euskal Herriaren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

- Lan egoerari begirata, azpimarra garrantzitsu bat: jubilatzean langileen gehiengoak desafiliatu egiten dira. Soilik %5,6k jarraitzen dute afiliatuta.

6. LABEK, SINDIKATUAK EZAGUTZEN DITUEN ETA SINDIKALISMOAREKIKO GERTUTASUNA DUTEN LANGILEEN ARTEAN BEGIKOTASUN ETA ATXIKIMENDU GEHIEN SORTZEN DUEN SINDIKATUA DA.

LAB sindikatuak begikotasun maila handia lortzen du sindikatu bezala. ELAren afiliazio erdiarekin eta ordezkaritza alde handiarekin, populazio osoarekiko ia begikotasun maila berdina sortzen dugu. Begikotasun horrek, zuzeneko gure oinarriaz haraindi jarrera eta irudi positiboa proiektatzen duen sindikatua garelako esan nahi du.


BEGIKOTASUN SINDIKALAK. HEH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriaren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Jarrera baikor hori indartu egiten da sindikatuekiko harremana handitzen den heinean. Sindikatuetan afiliatuta dauden artean (denen artean) LABek aprobazioa lortzen du. Eta sindikatuekiko gertutasuna zenbat eta handiagoa izan LABek proiektatzen duen begikotasun edota atxikimendua handiagoa da.

BEGIKOTASUN SINDIKALAK, SINDIKATUEKIKO HARREMANAREN ARABERA. HEH, 2023




Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Sindikatuak gehien baloratzen dituzten herritarren artean, LABek pizten du jarrera positiboena, alde handiz gainera. Eta kritika jasotzen badu ere, kritika apalena jasotzen duen sindikatuen multzoan dago.

LABzaleen artean gure ezaugarri hauek identifikatu ditugu azterketa honetan:

- LABekiko atxikimendu eta begikotasun handia dute LAB erreferentzia gisa duten langileek. Identifikazio maila altua dago. Posizio ideologiko horietan gertuko oinarriaren eta LAB sindikatuaren arteko identifikazio / begikotasun handia dago.


LABEKIKO ETA GAINONTZEKO SINDIKATUEKIKO HURBILTASUNA. HEH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

- Gure posizionamenduak oso ideologikoak dira: LABzaleak bereziki oso euskaltzale bezala agertzen dira eta abertzale, feminista, ekologista eta ezkerreko oso posizio indartsuarekin. Balore horietan guztietan ELAkoak baino gorago agertzen da LABen oinarria. ELAren oinarrian apalago agertzen da batez ere feminismoan, ekologismoan eta ezker eskalan.

LABZALEEN POSIZIONAMENDU IDEOLOGIKOAK. HEH, 2023




Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

- LABzaleen artean profil askoz ideologikoagoa ematen da hurbilekoen artean. LABzale izanda zenbat eta urrunago agertu sindikatutik posizio politiko moderatuagoak izaten dituzte.
- Iritzi sozialei dagokienean, azken urtetan soldatarekiko eta kontziliaziorekiko (ordutegi ona izatea) kezka handitzea azpimarratuko genuke. (8 urtetan prekarietateak eragin du baldintza materialekiko begirada zorroztea). Hain zuzen ere, soldata da poztasun maila txikiena biltzen duena.
- Azkenik, eta EAEko inkesta bati erantzunez, sindikalismoa sexu diskriminazioaren aurrean langileen aukera bezala agertzea azpimarratu nahi dugu.


BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK ETA BILAKAERA DEMOGRAFIKOA

Hego Euskal Herriko biztanleria etengabe hazten ari da, nahiz eta hainbat urteetan jaitsiera fase bat bizi izan (krisi eta pandemiarekin edo ondorengo urteekin bat egiten dutenak). 2024ra iritsita, biztanleria kopurua 2.906.632ko da. Guztira, 1998tik %9,2ko hazkundea izan du Hego Euskal Herriak.

HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIA BILAKAERA. 1998-2024




HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIA ALDAKETA. 1998-2022




Datuak herrialdeka aztertuta, ordea, bilakaera ezberdinak izan direla erakusten dute. Araba, Gipuzkoa, eta Nafarroa Garaiko biztanleria hazi egin da 1998 ezkerotik, eta Bizkaiaren egoera egonkorragoa izan da. Nafarroa Garaia da, laurdena (%25,1) hazita, biztanleria hazkunde handiena duen lurraldea. Ondoren dator Araba, %17,5eko hazkundearekin. Gipuzkoa %7,1 eta Bizkaia %1 hazi dira denbora tarte berdinean.

HEGO EUSKAL HERRIKO BIZTANLERIA BILAKAERA, 1998-2022. HERRIALDEKA



Iturria: INE. Errolda jarraituaren estatistika.

BIZTANLERIA ALDAKETA 1998-2022, HERRIALDEKA (%)




Orokorrean, 0-16 urteko adin tartea hazten ari da, 16-64 urte artekoa murrizten, eta 65 urtetik gorakoen taldea etengabe handitzen ari da. Nahiz eta 0-16koak pixka bat hazi, horrek ez du gure biztanleriaren zahartze prozesua eteten.

Azken 25 urteetan, haur eta gaztetxoek kopurua modu jarraituan handitu da. 2002 eta 2017 artean multzo hau handitu zen urtero, 2019tik ordea, txikitzen ari da.


Aldiz, 65 urtetik gorakoen multzoa etengabe hazi da, urtero-urtero. 1998 eta 2022 alderatuz gero, %47,9ko hazkundea izan du (+209.701).

16 eta 64 urte arteko multzoak, ordea, 2000 eta 2009 artean ia 55.000 herritar irabazi zituen. Aldiz, 2010etik hona kopurua txikitzen ari da, guztira 76.000 biztanle gutxiago izanik adin-tarte horretan. Bere pisu erlatiboa %69,7tik %63ra pasa da, biztanleria osoarekiko.


BIZTANLERIA KOPURUAREN BILAKAERA ADIN-TARTE HANDIEN ARABERA. 1998-2022. HEGO EUSKAL HERRIA.



BIZTANLERIA BILAKAERA ADIN-TARTE HANDIEN ARABERA. (%) 1998-2022. HEGO EUSKAL HERRIA.



ADIN-TARTE BAKOITZAREN ALDAKETA (%) 1998-2022. HEGO EUSKAL HERRIA.




Herrialdeka aztertuta, herrialde guztiek joera desberdinak izan dituztela ikusten da.

Araban gazteenen taldea nabarmen hazi da, %25, baina bereziki 65 urtetik gorakoenak izan du hazkunde oso handia (%77,6). Horrek biztanleria orokorraren zahartze nabarmen bat ekarri du Araban.

Nafarroa Garaian ere gazteenen hazkundea handia izan da, kasu honetan %37,4koa (lau herrialdeetan handiena), eta aldiz,


nagusienen multzoa ez da hainbeste hazi. Ondorioz, nahiz eta zahartu egin den, modu apalagoan egin du.

Bizkaian eta Gipuzkoan berriz, praktikan hazi egin den talde bakarra nagusia izan da (%43,1 eta %50,3 hurrenez hurren).




Honek guztiak biztanleriaren adinaren batezbestekoaren igoera nabarmena ekarri du. Herrialde guztietako adinaren batezbestekoak, 1975ean adin-tarteak 31 urteren bueltan zeuden, 2023rako 43-47 urteren artean kokatzen dira, lurralde guztietan hazkunde nabarmena erakutsiz.

2023an, Bizkaia batez besteko adinik zaharrena du (46,7 urte), eta Nafarroa Garaia da epealdi guzti honetan gutxien zahartu dena eta une honetan adin media baxuena duena (43,9 urte).



Emakume eta gizonen batez besteko adinen arteko aldeak erakusten dute gizonen batez besteko adina emakumeena baino txikiagoa izan dela beti, eta aldea areagotu egin dela denboran zehar. 1975etik 2023ra, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaian adin-desberdintasun hau handitu da. 2023an, Bizkaia da desberdintasun handiena duen lurraldea (3,3 urteko aldea) eta tarte gehien handitu duena. Nafarroa Garaian dago alde txikiena (2,3 urte).

EMAKUME ETA GIZONEN BATEZBESTEKO ADINEN ARTEKO ALDEA, HERRIALDEKA. 1975-2023 (EMAKUMEEN ADINA ERREFERENTZIATZAT HARTUTA)



Iturria: INE. Errola jarraituaren estatistika.

Adin piramideak ikusten baditugu, ikusten da nola 1998rako jaiotza kopuruak jaitsieran zeramaten 20 urtez, 18.000 ingururaino. Ondoren susperraldi txiki bat etorri zen, 2000 eta 2010 artean, 26.000 jaiotza egotera eraman zuena. Baina, ordutik berriro ere jaitsiera etorri da eta 18.000 inguruko minimo horretan mantentzen gara.


ADIN PIRAMIDEAK- HEGO EUSKAL HERRIA 1998-2024




Iturria: INE. Errola jarraituaren estatistika.

Adina eta sexu-generoa kontuan hartzen badugu, ikusten da denbora tarte honetan bereziki gehien hazi den multzoa gizon nagusia izan dela (%53,5). Nabardura hori eginda, ez da antzematen sexuaren arabera joera ezberdin nabarmenik.

BIZTANLERIAREN ADIN BANAKETA, SEXU-GENEROAREN ARABERA. BILAKAERA (%). 1998-2022




BIZTANLERIAREN ADIN BANAKETAREN ALDAKETA (%), SEXU-GENEROAREN ARABERA. 1998-2022



Estatu espainiarretik kanpo jaiotakoen kopurua nabarmen hazi zen 2000ko hamarkadan. Ia presentziarik ez izatetik, 200.000ko langa pasatzeraino. Ondoren krisi finantzarioaren eraginez, etorrerak apaldu egin ziren eta zenbaitzuk emigratu ere egin zuten, guztira 30.000 inguru gutxiago zenbatuz (194.251). Eta 2016tik aurrera berriro ere haziz joan zen pandemiarraino. 2022an 258.092 pertsonak biztanleri osoaren %9a osatzen zuten.


ESTATU ESPAINIARRETIK KANPO JAIOTAKOEN KOPURUAREN BILAKAERA, HEGO EUSKAL HERRIA. 1998-2022




Azken 25 urteetan, Bizkaia izan da Espainiatik kanpo jaiotakoen kopuru handiena jaso duena. Ondoren Nafarroa Garaia, Gipuzkoa eta Araba datoz. Gainontzeko biztanleriarekiko proportzioen arabera ordea, Nafarroa Garaia da nabarmen gehien jaso dituen (biztanleriaren %13,5 2022an) eta ondoren Araba (%11,1). Gipuzkoa %8,5 eta Bizkaia %7,9.

Gipuzkoa, oro har, pertsona gutxiago jaso duen lurraldea izan da, baina krisi garaietan ere hobeto etsi dio hazkunde horri.

ESTATU ESPAINIARRETIK KANPO JAIOTAKOEN KOPURU ALDAKETA, 1998-2022. HERRIALDEKA




ESTATU ESPAINIARRETIK KANPO JAIOTAKOEN KOPURU ALDAKETA, 1998-2022. HERRIALDEKA



Adinaren arabera aztertuta oso nabarmena da nola Espainiatik kanpo jaiotako pertsona horien zatirik handiena 16 eta 64 urte artekoa den (%80-85 artean urtero).

ESTATU ESPAINIARRETIK KANPO JAIOTAKOEN ALDAKETA (%), 1998-2022. HERRIALDEKA



ATALAREN LABURPENA

Hego Euskal Herriko biztanleria etengabe hazten ari da, 2024an 2.906.632 biztanle izatera iritsiz, 1998tik %9,2ko hazkundera izanda. Hala ere, herrialde bakoitzak bilakaera desberdina izan du. Nafarroa Garaia da hazkunde handiena izan duena (%25,1), ondoren Araba (%17,5), Gipuzkoa (%7,1) eta Bizkaia (%1) datoz.

Adin tarteak aztertuta, 0-16 urtekoen kopurua hazten ari da, baina 16-64 urtekoen multzoa murrizten ari da, eta 65 urtetik gorakoen taldea etengabe handituz doa (%47,9ko hazkundera 1998 eta 2022 artean). Araban, 65 urtetik gorakoen hazkundera %77,6koa da 1998tik hona, eta gazteen multzoak %25eko hazkundera izan du. Nafarroa Garaian, gazteen hazkunde handiena (%37,4) ikusi da, eta nagusien hazkundera apalagoa izan da.

Bizkaian eta Gipuzkoan, nagusien taldeak izan du hazkunderik handiena (%43,1 eta %50,3). Jaiotza kopurua 2000 eta 2010 artean hazi zen, baina berriro ere jaitsi egin da. Sexuaren arabera, gizon nagusien kopurua handitu da gehien (%53,5).


2000ko hamarkadan, Espainiatik kanpo jaiotakoek hazkunde nabarmena izan zuten Hego Euskal Herrian, 200.000 biztanle ingurura iritsiz. Krisiak eragin zuen beraien kopuruaren jaitsiera, baina 2016tik aurrera berriz handitu zen. 2022an, biztanleriaren %9a osatzen zuten. Bizkaiak jaso du kopuru handiena, nahiz eta Nafarroa Garaiak duen proportziorik altuena (biztanleriaren %13,5).

Espainiatik kanpo jaiotakoaren artean %80-85 inguruk 16 eta 64 urte artean dituzte.

BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK LAN MERKATUAREKIKO


Hego Euskal Herriko biztanleria lan merkatuarekiko modu ezberdinetan banatzen da. Lehenik eta behin, herritarren %36,5 ez-aktiboak dira, hau da, ez dute lan merkatuan parte hartzen. Gainerako populazio aktiboaren artean, gehiengoa sektore pribatuko soldatapekoa da, guztira biztanleri osoaren %30,3. Sektore publikoan, berriz, biztanleriaren %7,5 ari da lanean. Beraz, soldatapekoek (pribatuan zein publikoan) guztira biztanleriaren %37,7 osatzen dute.

Langabezia tasa nahiko txikia da, biztanleri osoaren %4,4, aktiboek %10 inguru. Bestalde, lan merkatuan dauden batzuk norbere kontura lan egiten dute. Hauen artean, %1,9 enplegatzaileak dira, %3,7 langile independenteak edo soldatapekorik gabeko enpresaburuak, eta %0,5 kooperatibako kideak. Laguntzaile moduan familia-negozioetan edo beste enpresetan dihardutenak, berriz, %0,1 dira.



Hego Euskal Herriko biztanleria aktiboaren bilakaera 2006tik 2023ra aldaketa batzuk ikusten dira. 2006an, biztanleria aktiboa 1.812.100ekoa zen. Hurrengo urteetan, 2012ra arte, beherakada txiki bat izan zuen, 54 mila biztanle gutxiago zenbatuz. 2013tik aurrera, hazkunde moderatua hasi zen berriro, 2021era arte, 1.873.800 izanik. Hurrengo bi urteetan, berriro ere jaitsiera txikiak ikusi dira.

16-64 URTEKO BIZTANLEAK. BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK), 2006-2023




Iturria: INE. EPA

28

Adina eta sexua kontuan hartzen baditugu, aldaketa nabarmenenak izan dira 2006tik 2023ra bitartean. 16-24 urte bitarteko taldeetan eta 55-64 urte bitarteko taldeetan ikusten dira aldaketak, bai gizonetan eta bai emakumeetan, bere pisua hazi egin delako (bereziki 45etik gorakoena). Aldiz, 25-44 urte bitarteko gizon eta emakumeen pisua nabarmen jaitsi da.

16-64 URTEKO BIZTANLEAK. BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK), 2006-2023




Iturria: INE. EPA

Biztanleen aitortutako naziotasuna aztertuta, ikusten da nola 2006tik haziz joan den estatu espainiarren kanpotik etorritakoen pisua eta, era berean, sexu-generoaren arabera haien artean ez dagoela alde nabarmenik.

Euskal Herrian edota Espainian jaiotakoen artean, biek galdu dute pisu demografikoa adin tarte hauetan, baina zertxobait gehiago gizonek.

16-64 URTEKO BIZTANLEAK, NAZIOTASUN AITORTUA ETA SEXU-GENEROAREN ARABERA (%). 2006-2023



Iturria: INE. EPA


Oro har, biztanleriaren prestakuntza-maila hobetzen joan da, goi mailako hezkuntzaren aldeko joera nabarmena izanik.

Bigarren mailatik beherako prestakuntza duen populazioa gutxitu egin da gizonen eta emakumeen artean, prestakuntza orokorrean hobetu den seinale.

Bigarren mailako prestakuntza egonkor mantendu da gizonen artean, eta emakumeen artean apur bat jaitsi egin da.

Goi mailako hezkuntza nabarmen handitu da bi sexuetan, baina emakumeen artean igoera handiagoa izan da, eta 2023rako emakumeek gizonak gainditu dituzte goi mailako hezkuntzan.

16 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK, LORTUTAKO PRESTAKUNTZA-MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK), 2014-2023



Iturria: INE. EPA


BIZTANLERIAREN BARRUAN, AKTIBOAK VS EZ-AKTIBOAK

2006an biztanle aktiboak 1.372,9 mila ziren eta 2023rako 1.410,8ra igo dira, hau da, denbora tarte honetan gorakada txikia izan dute, gorabehera batzuekin, 2013 eta 2020 artean bereziki.


Biztanle ez-aktiboen kopurua pixkanaka handituz joan da, 2006an 955,0 milatik 2023ko 1.051,3 milara arte. Urte batzuetan gorakada azkarragoa izan zen, esate baterako, 2020an 1.060,5 milara iritsi zen, baina 2021etik aurrera apur bat jaitsi da, nahiz eta oraindik ere 2006ko mailaren gainetik dagoen.

2006an biztanle aktibo eta ez-aktiboen arteko aldea 417,9 milakoa zen, eta azken urteetan aldaketa nabarmenak izan dira. Alde hau gutxitu egin zen 2020ra arte, non 263,4 milara jaitsi zen, horixe izanik denbora tarte honetako baliorik baxuena. 2021etik aurrera aldea berriro handitu egin da biztanle aktibo eta ez-aktiboen artean, eta 2023an 359,5 milara igo da.

16 URTETIK GORAKO BIZTANLEAK, JARDUERA EKONOMIKOAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK). HEH 2006-2023




16-64 URTEKO BIZTANLEAK, JARDUERA EKONOMIKOAREKIKO HARREMANAREN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK (MILAKOAK) ETA ERLATIBOAK. HEH 2006-2023



2006an emakumeak biztanle aktiboen %43,1 ziren, eta 2023rako %47,4 izatera iritsi dira. Hau da, emakumeen parte-hartzeak aktiboen artean nabarmen egin du gora urteetan zehar, etengabe igotzen joan da, 2020an %48ra iritsi arte. Hala ere, 2018tik aurrera beraien proportzioa egonkor mantendu edota zertxobait txikitu da.

Ez-aktiboen artean emakumeen ehunekoa jaitsi egin da. 2006an %62,6 ziren, eta 2023rako %57,0ra murriztu da. Honek adierazten du gero eta emakume gehiago aktibo bihurtu direla lan merkatuan, ez-aktiboen multzoan beren proportzioa apalduz.


AKTIBOAK ETA EZ-AKTIBOAK SEXU-GENEROAREN ARABERA. HEH, 2006-2023



Biztanleria aktiboaren barruan, gazteen aktibitatea jaitsi (2002T1n %10,1ekoa zen, eta 2024T2rako %6,6ra iritsi da) eta adinekoen aktibitatea handitzen ari da (2002T1n %9,7koa zen eta 2024T2n %22,8ra iritsi da), eta hori lan-merkatuaren dinamikan aldaketa garrantzitsua da.

Ez-aktiboen artean ere, nagusien pisua nabarmen igo da, ez horrela gazteenena.

AKTIBOAK ETA EZ-AKTIBOAK ADIN TARTEAREN ARABERA.HEH, 2002-2024




AKTIBOAK

Orain arteko datuekin sintonian, gazteen aktibitatea murrizten ari da lan merkatuari dagokionez. Gizonen kasuan 2006an %0,9koa zen 16-19 adin-taldean, 2023an %0,5era jaitsi da, eta 20-24 adin-taldean, %3,9tik %3,0ra. Emakumeen kasuan 16-19 adin-taldean, 2006an %3,3koa zen eta 2023an %2,4ra jaitsi da, eta 20-24 adin-taldean, %13,4tik %8,8ra.

Helduen (25-54) artean, ez dago aldaketa handirik, baina jaitsiera txikia nabarmentzen da, bereziki gizonen artean.


Eta adinekoen (55+) aktibitatea handitzen ari da, batez ere emakumeen artean. Gizonen kasuan 55+ adin-taldean, 2006an %7,4koa zen eta 2023an %11,8ra iritsi da. Emakumeen kasuan, 2006an %3,9koa zen eta 2023an %10,5ra iritsi da.

AKTIBOAK, ADINA ETA SEXUAREN ARABERA. BALIO ERLATIBOAK. HEGO EH 2006-2023




Hirugarren mailako hezkuntza duten pertsonen ehunekoa etengabe handitzen ari da 2014ko lehen hiruhilekotik 2024ko bigarren hiruhilekora arte. 2014ko lehen hiruhilekoko %49,2tik %57,3ra igaro da 2024an, 8,1 puntuko igoerarekin. Bigarren mailako hezkuntza eta bigarren mailatik beharokoak behera egin dute, azken honen kasuan proportzio oso txikian geratuz (%2,9).

AKTIBOAK FORMAKUNTZAREN ARABERA. 2014-2024 (%)



Aktiboak diren biztanleen artean, Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoak nabarmen hazi dira azken 20 urteetan. Hazkunde hori ez da izan


jarraia ordea, egoera ekonomikaren arabera baizik. Horrela, 2002 eta 2010 artean hazkunde handia egon zen, ondoren jaitsiera eta 2017tik aurrera berriro ere gutxinaka igo da. Une honetan biztanleria aktiboaren %12 dira.



AKTIBOEN BARRUAN, OKUPATUAK ETA LANGABEAK

Biztanleria okupatuaren kopuruak egoera ekonomikoari jarraitu dio: gora egin du egoera hobetzen zenean eta behera okertzen zenean. 2023ko azken lauhilekoan azken 23 urteetako kopuru altuenean zegoen (1.327,3 mila).


Langabetuen kopurua, azken 10 urteetan behera egiten joan bada ere, 2008an baino %50 altuagoa da oraindik.



Biztanle aktiboen barruan, emakume okupatuen proportzioa 2006an %39,4koa zen eta 2023an %43,1era igo da. Gizonena berriz, %53,8koa zen eta 2023an %48,6ra iritsi da.


Emakumeen langabetu proportzioa gizonena baino altuagoa da, 2023an %4,3 eta %3,9 hurrenez hurren, baina tartea txikia da eta bilakaera guztian nahiko antzera mantendu dira.

OKUPATUAK ETA LANGABEAK, SEXUAREN ARABERA. BALIO ERLATIBOAK. HEGO EH, 2006-2024



Iturria: INE. EPA

OKUPATUAK ETA LANGABEAK, SEXUAREN ARABERA. BALIO ERLATIBOAK. HEGO EH, 2002-2024




Iturria: INE. EPA

Hurrengo grafikoan ikusten da, berriro ere, nola eragin duen jendartearen zahartzeak. Batetik 55 urtetik gorako okupatuaren proportzioa nabarmen igo da, %10,1etik %23,7ra. Baina aldi berean, adin talde horren proportzioa langabetuen artean %5,3tik %18,8ra igo da. Hau da, bi kasuetan 13 puntu inguruko igoera egon da eta igoera horiek nahiko konstanteak izan dira urte guzti horietan.


Gazteenen kasuan, ordea, bai okupatuaren artean bai langabetuen artean jaitsiera egon da, pisu demografikoaren bilakaerarekin bat egiten duena. Baina 2015etik aurrera biak handitu badira ere, langabeziaren hazkundera apur bat handiagoa izan da.

OKUPATUAK ETA LANGABEAK, ADINAREN ARABERA. KOPURU ERLATIBOAK. HEGO EH, 2014-2024




Iturria: INE. EPA

Okupatuaren artean goi-mailako ikasketadunen presentzia handitu egin da, ez horrela langabetuen artean, hor proportzioa nahiko antzera mantendu baita azken 10 urteetan.




Okupatutakoen artean Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoen ehunekoa biztanleria aktiboan ikusi dugun grafikoaren oso antzekoa da. Proportzio berdinetik abiatzen da eta krisiaren jaitsieraren ondoren, berriro ere errekuaratzen hasten da. Hala ere, ez da iritsi aktiboaren artean duten proportziora, horrek adierazten du beraz, langabezia handiagoa dela sektore honen barruan.



SOLDATAPEKOAK


Soldatapekoen kopurua 900 milatik 1.130.000 gaitzera pasa da azken 20 urteetan.



Iturria: INE. EPA

Horien artean, sektore pribatua da nagusi (%80 inguru), nahiz eta pisua galdu duen azken hamarkadetan (-2,4). Soldatapekoen artean emakumeen proportzioak 12,7 puntu egin du gora, %49,7an kokatuz. Hazkunde hori sektore publikoan (+6,3) zein pribatuan (+5,5) presentzia irabaziz eman da. Hala ere, emakumeen presentziak handiago izaten jarraitzen du sektore publikoan pribatuan baino.


SEKTORE PUBLIKOA VS SEKTORE PRIBATUA ETA SEXU-GENEROA. 2002-2024(%)



Iturria: INE. EPA


Ez-aktiboen artean, aktiboen artean, okupatuen artean, langabetuen artean... bezala, soldatapekoen artean ere 55 urtetik gorakoen presentzia da nabarmen igo dena azken hamarkadetan. Gazteenena ere besteen joerei jarraitzen die.

SOLDATAPEKOAK ADINAREN ARABERA. HEGO EH, 2002-2024




Soldatapeko langileak aspalditik zerbitzuetan aurkitzen dira nagusiki (%72,3 2023 urtearen bukaeran). Nekazaritza eta abeltzantza oso presentzia txikia dute aspalditik eta industria eta eraikuntza gutxinaka pisua eta proportzioa galtzen ari dira.

SOLDATAPEKOAK SEKTOREAREN ARABERA. HEGO EH, 2008-2024



Soldatapekoen kontratazioan 2002tik mugagabeko kontratuen proportzioak gora egin du, egun %80aren bueltan kokatuz. Horien artean emakumeek %47,7 dituzte egun, 10 puntuko igoera izan dutelarik azken bi hamarkadetan. Mugatuen artean ere antzeko igoera izan dute, ia 8 puntukoa, baina kasu honetan sexu-genero berdintasunetik urrunduz.

SOLDATAPEKOAK KONTRATUEN ARABERA. HEGO EH, 2002-2024



ATALAREN LABURPENA

Biztanleriaren banaketa orokorra:

- Ez-aktiboen kopurua handia da: Biztanleriaren %36,5 ez dago lan merkatuan.
- Sektore pribatuko enplegua nagusi: Sektore pribatuan dauden soldatapekoak populazioaren %30,3 dira.
- Langabezia maila txikia: Biztanleriaren %4,4 langabezia dago, aktiboen %10.
- Sektore publikoko langileak: Lan merkatuan dauden pertsonen %7,5 sektore publikoko soldatapekoak dira.
- Norbere konturako enpleguaren pisua: Norbere konturako enpleguaren modalitate ezberdinek populazioaren %6,2 osatzen dute (enplegatzaileak, kooperatibistak, etab.).


Oro har biztanleriaren zahartze prozesu bat dago eta horrek lan-merkatuaren kategoria guztiei eragiten die:

1. Nagusien pisua handitzen joan da aktibo eta ez-aktiboen artean.
2. Ez-aktiboen pisua igo da oro har, eta horien barruan (ume eta nagusiak orokorrean), gizon nagusiena.
3. Aktiboen kopurua igo egin da azken hamarkadan. Hauen barruan, okupatuen pisua da igo dena, bereziki emakume helduena.
4. Langabetuen kopurua 2000ko hamarkadako baina handiagoa bada ere, azken hamarkadan jaisten joan da. Langabetuen artean, sexu-genero parekidetasuna gertu dago.
5. Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoek eusten diote neurri handi batean lan merkatuak behar duen langile kopuruari. Hala ere, haien artean langabezia handiagoa da.
6. Biztanleriaren, eta zehazkiago langilegoaren, prestakuntza akademikoak nabarmen egin du gora. Goi-mailako ikasketak dituztenak azken 10 urteetan 8 puntu egin dute gora, %57a gaindituz.
7. Soldatapekoen kopurua 900 milatik 1.130.000 gainditzera pasa da azken 20 urteetan. Horien artean, sektore pribatua da nagusi (%80 inguru), nahiz eta pisua galdu duten azken hamarkadetan (-2,4). Soldatapekoen artean emakumeen proportzioak 12,7 puntu egin du gora, %49,7an kokatuz. Hazkunde hori sektore publikoan (+6,3) zein pribatuan (+5,5) presentzia irabaziz eman da. Hala ere, emakumeen presentziak handiago izaten jarraitzen du sektore publikoan pribatuan baino.
8. Soldatapekoen kontratazioan 2002tik mugagabeko kontratuen proportzioak gora egin du, egun %80aren bueltan kokatuz. Horien artean emakumeek %47,7 dituzte egun, 10 puntuko igoera izan dutelarik azken bi hamarkadetan. Mugatuen artean ere antzeko igoera izan dute, ia 8 puntukoa, baina kasu honetan sexu-genero berdintasunetik urrunduz.
9. Emakumeen presentzia igo egin da sektore publikoan eta pribatuan, baina desorekak jarraitzen du egoten publikoaren alde.
Kontratu mugagabe eta mugatueta ere, bietan gora egin du, baina mugatueta berdintasunera iritsi da ia, mugagabeetan berdintasunetik urrundu da, desoreka sortuz.

ENPRESA DEMOGRAFIA

ENPRESA EGITURA ETA DINAMIKA


Hego Euskal Herriko enpresen kopuruak goranzko joera izan zuen 2000tik 2010era, baina 2010etik 2023ra behera egin zuen. Bi jaitsiera nabarmen azpimarratu daitezke: lehena 2010etik 2015erakoa, 20.423 enpresen galera izan baitzen epe horretan; bigarrena, 2022tik 2023rakoa, non enpresa kopurua 12.631 gutxitu zen.



Soldatapeko langile kopuruaren arabera aztertuta, 2023an, soldatapekorik gabekoak enpresen erdia baino gehiago dira (%50,7) eta gero 6 langiletik beherako enpresak (%39,1). Distantzia handira, hirugarren lekuan 10 eta 49 langileen artekoak (%4,9) eta laugarrenean 6 eta 9 artekoak (%4,2). Gainontzeko guztiek, 50etik gorakoek, enpresen %1,1a batzen dute.

SOLDATAPEKO KOPURUAREN ARABERAKO ENPRESA PORTZENTAIA.

HEGO EH, 2023




Enpresa horiek zenbat enplegatu dituzten aztertzeko, EAEko datua bakarrik eskuratu da eta ez langile kopuru estratu berdinetan banatuta. Hala ere, eta erreferentzia bezala balio dezakeelakoan, txostenera ekarri da.

Datu horien arabera, hiru multzo nagusitan banatzen dira langileak. Ia herena (%30,8) 100 langiletik gorako enpresatan aurkitzen da. Beste %26,2 10 eta 49 artekoetan eta %24,7 sei langiletik beherakoetan.


Beraz, Hego Euskal Herrian enpresen %90a osatzen dutenek (soldatapekorik gabeek edo 6 langile baino gutxiagokoek), langileen %24,7 enplegatzen dituzte EAEn. Aldiz, 100 langiletik gora diren Hego Euskal Herriko enpresen 0,5ak, langileen %30,8 dira EAEn.

ESTABLEZIMENDUAK ETA PERTSONA ENPLEGATUAK. EAE, 2023




Portzentaje horiek serie guztian zehar nahiko egonkor mantendu dira, nahiz eta kopuruetan aldaketak egon diren.

ENPRESA KOPURUAREN BILAKAERA SOLDATAPEKOEN KOPURUAREN ARABERA, 2000-2023. HEGO EUSKAL HERRIA




Oro har, enpresa tamaina guztiek antzeko joera izan dute, kopuru absolutuak ezberdinak badira ere. Kopuruan gora egin zuten 2000tik 2010era eta gero behera, bi kolpe nagusitan.

ENPRESA KOPURUAREN BILAKAERA SOLDATAPEKOEN KOPURUAREN ARABERA (ENPRESA TAMAINAREN ARABERA), 2000-2023. HEGO EUSKAL HERRIA



Langile kopuruan duten garrantziagatik, nahiz eta enpresa kopurua txikia izan, nabarmendu behar da 1.000 soldatapekotik gorako enpresek izan duten gorakada. Izan ere epealdi honetan 1.000 – 4.999 soldatapeko artean dituzten enpresak 34 izatetik 61 izatera pasa dira (+%79,4) eta 5.000 soldatapekotik gorakoak 4tik 10era (+%150).

ENPRESA KOPURUAREN ALDAKETA (%) SOLDATAPEKOEN KOPURUAREN ARABERA, 2000/23. HEGO EUSKAL HERRIA.




Iturria: INE - Dirce

ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA

2 023an Hego Euskal Herriko enpresen ia hiru laurdenek zerbitzu sektorean ziharduen (%72,1, 253.730). Ondoren eraikuntzara dedikatzen zirenak (%13,3, 46.722), industriari lotuak (%7,7, 27.184) eta bestelako zerbitzuak zeuden (%6,9, 24.386).

ENPRESEN BANAKETA, SEKTOREAREN ARABERA 2023, HEGO EUSKAL HERRIA




Iturria: INE - Dirce

Zerbitzuetako enpresak nagusi dira, enpresa tamaina guztietan.


Bestalde, soldatapekorik gabeko enpresak dira nagusi sektore guztietan, batez ere zerbitzu sektorean, non 130.438 enpresa dauden egoera horretan, hau izanik bi aldagaia batara kontuan hartuta segmentu nagusia. Gainera 5.000 langile baino gehiago dituzten 20 enpresak zerbitzuetan aurkitzen dira.

Bigarren segmentu nagusia soldatapeko bat edo biz osatutako zerbitzu enpresak dira, 75.366 enpresekin. Hirugarrena eraikuntza sektorean aurkitzen dugu, non soldatapekorik gabeko 28.608 enpresa aurkitzen ditugun.

ENPRESEN BANAKETA SEKTOREKA ETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA 2023,
HEGO EUSKAL HERRIA




ENPRESEN BANAKETA SEKTOREKA ETA ENPRESA TAMAINAREN ARABERA 2023, HEGO EUSKAL HERRIA




Iturria: INE – Dirce

Bilakaerari erreparatzen badiogu, sektore guztietan egon da jaitsiera 2008tik hona. Guztira 86.278 (%-19,7) enpresa galdu badira, ia erdia, 41.372, zerbitzu sektorean izan da (%-14,0). Hala ere, sektore barruko enpresak kontuan hartuta, proportzionalki gehien galdu duena eraikuntza izan da, 32.880 enpresa gutxiago (% -41,3).

ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREAREN ARABERA, 2008 - 2023, HEGO EUSKAL HERRIA



ENPRESEN BILAKAERA SEKTOREKA, 2008-2023 ALDEA (%), HEGO EUSKAL HERRIA



ATALAREN LABURPENA

Enpresen kopuruaren beherakada nabarmena izan da 2010etik aurrera: 2000tik 2010era gorakada izan zen, baina 2010etik 2023ra bi jaitsiera nabarmen egon dira, batez ere 2022-2023an 12.631 enpresa gutxiago izanik.

Soldatapekorik gabekoak eta mikroenpresak dira nagusi: 2023an enpresen %50,7 soldatapeko langilerik gabekoak ziren, eta beste %39,1ek 6 langile baino gutxiago zituzten.

Enpresa handien gorakada azpimarragarria: 1.000 langiletik gorako enpresen kopurua %150 hazi da, 5.000 langile baino gehiagoko enpresen kasuan nagusiki zerbitzuen sektorean. Enpresa kopuruari begiratuta, akaso gutxi iruditu lezakeen arren (4tik 10era pasa dira), enplegatzen duten langile kopuruaren arabera garrantzitsua da datua.

Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna eta eraikuntzaren jaitsiera: 2023an, enpresen %72,1 zerbitzuetan aritzen ziren, eraikuntza sektoreak aldiz %41,3ko galera proportzionala izan du 2008tik hona.


LAN GATAZKAK ETA AKORDIOAK

GREBA ETA PATRONAL ITXIERAK

Jarraian, Hego Euskal Herriko (HEH) eta Espainiar Estatuko greba kopuruak eta intentsitatea alderatzen dira 2008 eta 2023 urteen artean. HEH-n greba kopurua urtero 200 eta 400 artean egon da, 2013an (436 greba) eta 2016an (211 greba) izanik urte gorabeheratsuenak. Espainiar Estatuan, kopurua handiagoa da, oro har, 2020ko 487 grebetatik 2009ko 1.001 grebetara bitartekoa. Hala ere, kontuan hartzen badugu biztanleria kopurua, eta modu zehatzagoan, soldatapeko langileak, argazkia bestelakoa da.

10.000 soldatapeko bakoitzeko, HEH-n greba intentsitatea handiagoa izan da urte guztietan, 2013an maximoa lortuz (4,66 greba 10.000 langileko). Espainiar Estatuan, aldiz, intentsitatea txikiagoa izan da, urte gehienetan 0,50 grebaren inguruan, gehien 2013an (0,71) eta gutxien 2020an (0,30).

GREBA KOPURUA ETA INTENSITATEA, HEGO EUSKAL HERRIA ETA ESPAINIAR ESTATUA, 2008-2023




Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Herrialdeka aztertuta eta greba kopurua aintzat hartuta, Bizkaia izan da greba gehien izan duen lurraldea ia epealdi osoan zehar. 2008an 107 greba egon ziren, eta 2023an kopurua maximora iritsi da (221 greba).

Gainontzeko herrialdeek, gora-beherekin, baina greba kopuru antzekoak izan dituzte, azken bost urteetan Gipuzkoan zertxobait gora egin badu ere.

GREBA KOPURUA, HERRIALDEKA, 2008-2023.



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta


Greba kopurua 10.000 biztanle okupatuko aztertuta, berriz, Araba izan zen greba-tasarik altuena izan duen lurraldea 2008an (3,5 greba), eta 2013an (6,7) maximoa izan da, baina ondoren gainontzeko herrialdeen zenbakietatik hurbilago egon da.

Bizkaiak eta Gipuzkoak goranzko joera erakutsi dute azken urteetan. 2023an 4,2 grebako tasara iritsi da Bizkaia, altuena Hego Euskal Herrian.

Nafarroa Garaia izan da greba-tasarik txikiena duen lurraldea. Nahiko egonkor mantendu da; 1,3-3,5 greba bitartean 10.000 okupatuko.

Laburbilduz, Arabak ia hamarkada bat egin du besteak baino tasa altuagoekin, ondoren behera egin eta Bizkaiak eta Gipuzkoak gora eginez, hirurak antzera egon dira. Nafarroa Garaiak tasarik txikiak izan ditu, igoera puntualekin besteen pare jarritz.


GREBA KOPURUA 10.000 OKUPATUKO, HERRIALDEKA, 2008-2023



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Parte hartu duten langile kopuruari begiratzen badiogu, espainiar estatuan gainbehera handi bat ikusten den bitartean, Hego Euskal Herrian konstanteagoa izan da bilakaera.


PARTE HARTURIKO LANGILEAK HEGO EUSKAL HERRIAN ETA ESPAINIAR ESTATUAN, 2008-2023.



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Kopurutan, normala izan daitekeenez, Espainian grebalari gehiago izan ohi dira, baina tasa erlatiboa kontuan hartzen badugu, 10.000 soldatapekoko, Hego Euskal Herria beti egon da gainera, zenbait urtetan, Hego Euskal Herriko zenbakiak jaitsi direlako, parekoago egon badira ere. Hau da, Hego Euskal Herriko eta Espainiako grebalari tasa parekatzen da Hegoa Euskal Herrian mobilizazioak jaisten direnean.


PARTE HARTURIKO LANGILEAK HEGO EUSKAL HERRIAN ETA ESPAINIAR ESTATUAN (10.000 SOLDATAPEKOKO), 2008-2023.



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Greba bakoitzeko zenbat langilek egiten duten greba aztertuta, kopuruak altuagoak dira Espainiako Estatuan Hego Euskal Herrian baino.

GREBA BAKOITZEKO GREBALARI BATEZBESTEKOAK, HEGO EUSKAL HERRIAN ETA ESPAINIAR ESTATUAN, 2008-2023




Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Herrialdeka aztertuta, langile kopuru ezberdintasunak ez du ematen grebalari kopuruari bereziki eragiten dionik. Bizkaia da langile gehiago grebara eraman dituen azken urteetan, baina ez seriearen bilakaera guztian zehar. Horrela, adibidez, 2010ean Gipuzkoa izan zen grebalari gehien izan zituen herrialdea eta 2011 eta 2012an Nafarroa Garaia.

Grebetan parte hartutako langileak bezala, lan egin gabeko egunak soldatapeko bakoitzeko aztertzen badugu, Hego Euskal Herriko zenbakiak handiagoak dira Estatukoak baino, eta parekatzen dira Hegoa Euskal Herrian behera egiten denean.

Hego Euskal Herrian urte gorenak 2010, 2019 eta 2022 izan dira.


GREBALARI KOPURUA HERRIALDEKA, 2008-2023



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

Lanik egin gabeko egunak herrialdeka aztertuta, grebalari kopuruaren antzera gertatzen da, joera antzekoak ikusten baitira. Bizkaia da langile gehien mantendu dituen greban azken urteetan, baina ez seriearen bilakaera guztian zehar. Horrela, adibidez, 2010ean Gipuzkoa izan zen lan egin gabeko egun gehien izan zituen herrialdea.

LAN EGIN GABEKO EGUNAK, HERRIALDEKA. 2008-2023



Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

ATALAREN LABURPENA

Greba kopurua eta intentsitatea: Hego Euskal Herrian (HEH) greba kopurua eta intentsitatea handiagoak izan dira Espainiar Estatukoekin alderatuta, nahiz eta biztanleria txikiagoa izan. 10.000 soldatapeko langileko, HEH-k urtero greba gehiago izan ditu.

Herrialdeetako greba-tasak: Bizkaia izan da greba kopuru handiena izan duen lurraldea, eta azken urteetan intentsitate handiena ere hark izan du. Arabak epealdiaren hasieran greba-tasa altua izan zuen, baina urteetan zehar parekatu egin da beste lurraldeekin. Nafarroa Garaiak, aldiz, tasa baxuenak izan ditu.

Langileen parte-hartzea eta lan egin gabeko egunak: Hego Euskal Herrian grebetan parte hartutako langile kopurua eta lan egin gabeko egunak handiagoak izan dira Espainiar Estatuan baino. Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiak ere une batzuetan greba-tasa altuak izan dituzte.

Urte garrantzitsuak: HEH-n grebak nabarmenak izan dira zenbait urtetan, hala nola, 2010, 2019 eta 2022an, lan egin gabeko egunen kopuruak gora eginez. Antzeko joera ikusi da grebalari kopuruan eta lanik egin gabeko egunetan lurralde guztietan.

LAN HITZARMENAK

2002an 565 lan hitzarmen sinatu ziren eta 2000ko hamarkadan urtero 500 eta 600 hitzarmenen artean mugitu ziren. Hala ere, 2008an jaitsiera hasten da eta 2011ra arte luzatzen da, zeinetan 431 lan hitzarmen sinatu ziren.

2011tik aurrera, lan hitzarmenen kopurua hazten joan da. 2012 eta 2013 urteetan igoera garrantzitsuak izan ziren (635 hitzarmen 2013an), eta 2014tik aurrera kopuru altuagoak mantendu ziren, 700etik gorako balioekin 2014tik 2019ra.

Pandemiaren urtea, 2020an, nolabaiteko jaitsiera antzeman zen, baina ez nabarmenegia. Ondoren, 2021etik 2023ra arteko urteek 700etik gorako hitzarmen kopurua erakusten dute, nahiz eta 2023an pixka bat jaitsi zen (697).

2002an 424.694 langile babestu ziren sinatutako lan hitzarmen horien bidez. Urte horietan (2002-2008) 350.000 eta 400.000 langile bitartean babestu ziren.

2009tik aurrera, lan hitzarmen gutxiago sinatzearekin batera, nabari da beherakada bat babestutako langileen kopuruan, 2010 eta 2011 urteetan, batez ere (255.000 eta 250.000 langile inguru).

2012tik 2019ra, langileen kopuruak egonkor mantendu ziren 300.000 eta 350.000 inguruan.


2020 eta 2021an berriro igo zen kopurua, pandemiaren urtea izan arren, eta 2022 eta 2023an kopuru altuak mantendu ziren (2023an 424.756 langile, hau da, 2002ko balioaren parekoa).

Bilakaera Orokorra:

- 2008an krisi ekonomikoaren eragina somatu zen, batez ere 2010 eta 2011 urteetan, bai hitzarmen kopuruaren jaitsierarekin, bai babestutako langileen kopuruaren beherakadarekin.
- 2012tik aurrera, lan hitzarmeneta eta babestutako langileen kopuruan berreskurapen nabaria izan zen, eta 2020tik aurrera datuak egonkortu egin dira.

Laburbilduz, datuek erakusten dute krisi ekonomikoaren garaiek eragina izan dutela, baina azken urteetan lan hitzarmenak eta babestutako langileak egonkor eta goranzko joeran egon dira, pandemia urteak izan arren.

HEGO EUSKAL HERRIAN URTERO SINATUTAKO HITZARMEN KOPURUA GUZTIRA ETA HORIENGATIK BABESTUTAKO LANGILE KOPURUA, 2002 -2023




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Herrialdeka aztertuta, 2008ko krisi finantzieroaren testuinguruak dena kolpatu zuen. Hitzarmen kopuruak jaitsiera nabarmena izan zuen Hego Euskal Herriko lurralde guztietan.

2013-2021 artean: Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan hitzarmen kopuruak gora egin zuen eta krisiaren aurreko kopuruetatik gora mantendu dira. Bizkaian ere errekupeazioa eman da, baina krisiaren aurreko balioetan kokatuta. Araban krisiaren ondoren, errekupeazioa motelagoa izan da.

URTERO SINATUTAKO HITZARMEN KOPURUA HERRIALDEKA, 2002-2021




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Krisi ekonomikoaren urteetan (2009-2012) lurralde guztietan beherakada nabarmena egon zen babestutako langileen kopuruan, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaian.

2013-2021 bitartean errekupeazioa ematen da. Babestutako langileen kopurua pixkanaka igo zen Nafarroa Garaian, Bizkaian eta Gipuzkoan, nahiz eta 2021ean berriro apur bat jaitsi Bizkaian eta Nafarroa Garaian.

URTERO SINATUTAKO HITZARMENENGATIK BABESTUTAKO LANGILE KOPURUA, HERRIALDEKA. 2002 -2021




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Enpresa mailako hitzarmenak dira gehien sinatu direnak, urte gehienetan 400 eta 700 artean. Krisi urteetan beherakada handiak izan ziren, baina ondoren, 2014 eta 2015 urteen artean etorri ziren igoera handienak eta hortik aurrera altu mantendu, pandemia urtera arte.

Enpresaz gaindiko hitzarmenak askoz gutxiago sinatzen dira. Hauei, besteei bezala, krisiak eragin zien, baina ondoren ez dute errekupeazio maila berdina izan.

Laburbilduz, enpresa mailako hitzarmenak dira gehien sinatzen direnak, eta haien kopuruak joera positiboagoa izan du azken urteetan, nahiz eta pandemiak eragina izan duen. Enpresaz gaindiko hitzarmenak aldiz, askoz kopuru txikiagoan sinatu dira, eta ez dute goranzko joera handirik erakutsi azken urteetan.

SINATUTAKO LAN HITZARMENAK ERAGIN BARRUTIAREN ARABERA, 2002-2023




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Enpresa eremuko hitzarmenen bidez babestutako langileen kopurua nahiko egonkor mantendu da (serie guztian zehar kopuru txikiena 63.000 eta altuena 95.000), goranzko joera batekin krisi garaia gainditu ostean (2010-2011). 2020tik aurrera, pandemia garaian, kopurua pixka bat jaitsi bazen ere, 2022an berriro igo zen.

Enpresaz gaindiko hitzarmenetan berriz, babestutako langileen kopurua askoz handiagoa izan da enpresa mailako hitzarmenekin alderatuta, nahiz eta krisi garaian (2010-2011) kopuruak asko jaitsi ziren (325.000tik 187.000ra). Hortik aurrera gutxinaka joan zen kopurua igotzen eta 2020tik aurrera, goranzko joera handia izan da, eta azken urteetan (2022-2023) datu altuagoak lortu dira, pandemiaren eragina gaindituta.

SINATUTAKO LAN HITZARMENEK BARNE-BILTZEN DUTEN LANGILE KOPURUA ERAGIN BARRUTIAREN ARABERA, 2002-2023




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Sinatzen den lan hitzarmen bakoitzeko, batez beste, zenbat langile babesten diren kontuan hartzen badugu, enpresa eremuko hitzarmenei dagokienean 2002tik 2023ra, hitzarmen bakoitzak babestutako langile kopuruak aldaketa txikia izan du eta seriearen bigarren erdian beheranzko joera izan du. Hala ere, kopuruak ez dira oso aldakorrak izan, urte gehienetan 120-150 langile bitartean egon baitira.

Enpresaz gairako hitzarmenetan, hitzarmen bakoitzeko babestutako langile kopurua askoz altuagoa izateaz gain, 2002tik 2019ra, batez beste antzeko zenbakietan ibili ondoren, 2019tik aurrera igoera handiak izan dira, batez ere pandemia garaian. 2020-2023an, kopuruak maximo historikoak lortu ditu, batez beste 4.000 langile ingurura iritsiz hitzarmen bakoitzeko.

LAN HITZARMEN BAKOITZAK, BATEZ BESTE BABESTUTAKO LANGILE KOPURUA




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboaren Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Urte bakoitzean sinatu diren lan hitzarmenak zenbat soldatepekoie eragiten dien kontuan hartzen badugu, estaldura tasa, joera nagusia 2002tik 2011ra beheranzkoa izan zen, finantza krisiaren testuinguruan behera jo zuelarik. 2012tik aurrera, aldiz, estaldura tasa hobetu egiten da, eta pandemia garaian igoera nabarmena izan zuen. 2023an %37,3an mantentzen da tasa.

Enpresa eremuko estaldura tasa nahiko egonkorra izan da urte guztietan zehar, krisi eta pandemiaren eraginez aldaketa txiki batzuk izan arren. Gehienetan %7-9 bitartean egon da.

Enpresaz gairako estaldura tasak, berriz, krisi garaian jaitsiera nabarmena izan zuen, baina ordutik gutxinaka suspertzen joan da eta 2023an estaldura altuena izan du, %30,7 langile babestuta egonik.

SINATUTAKO LAN HITZARMENEN ESTALDURA TASA ETA BARRUTIAREN ARABERA, HEGO EH, 2002 - 2023




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboaren Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

2021ean, soldatapeko langileen %84,4 indarrean edo luzapenean zeuden lan hitzarmenek estalita zeuden. Ondoren urtetik urtera pixkanaka hazi da, nahiz eta hazkundera txikia izan. 2023an, lan hitzarmenek estalitako langileen portzentajea %85ekoa izan da.

Gizonek estaldura tasa altuagoa dute (%90 inguru), emakumeek baino. Hala ere, alde hori pixkanaka txikitzen doa. 2021ean, emakumeen %78,1 babestuta zegoen lan hitzarmen bidez, baina 2023rako %79,0ra igo da. Horrek eragin du 2021eko 12,1 puntutik 2023ko 11,5 puntura jaistea bien arteko aldea.

INDARREAN ETA LUZAPENEAN DAUDEN HITZARMENEN ESTALDURA TASA OROKORRA ETA SEXU-GENEROAREN ARABERAKOA. 2021-2023




Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza

Oro har, sinatutako lan hitzarmen berriek eragin dituzten soldata aldaketak aztertuta, honako ondorioak atera daitezke:

- Beti izan dira igoerak.
- Igoera horiek nabarmen txikiagoak izan ziren krisi finantzarioaren testuinguruan.
- Ondoren errekupeazio txiki bat lortzen joan da, 2015 eta 2020 artean.
- 2020ko pandemiaren ostean, 2022 eta 2023an igoera nabarmenak lortu dira, %4tik gorakoak kasu guztietan.
- Erkidegoka edo eragin barrutika aztertuta, ez dira antzematen joera bereizirik.


LAN HITZARMENETAN BATEZ BESTEKO SOLDATA-ALDAKETA BERRIKUSIA. 2009-2023



Iturria: LHK eta Hitzarmen kolektiboen Estatistika, Espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza


Azken urteetako inflazioak bizitza garestitu du, KPI-aren igoerak oinarrizko elikagai zein produktuei bereziki eragin dielako. Lan hitzarmenetan adosturiko soldata igoera, ordea, ez da neurri berean igo. Jarraian, 2020 eta 2023. urteen artean Nafarroa Garian eta EAE-n batzaz beste adosturiko soldata igoerak eta KPI-aren bilakaera.

SOLDATA IGOERA ETA KPIA NAFARROA GARAIAIN. 2020-2023



Iturria: INE eta espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza


SOLDATA IGOERA ETA KPIA EAEN. 2020-2023



Iturria: INE eta espainiar estatuko Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministeritza


Hurrengo datuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan sinatutako lan hitzarmenenak eta horiek zenbat langileri eragiten dien dira, EAEn edo Estatuan erregistratu diren arabera. Horren arabera, 2012 eta 2023 bitartean, EAE-n erregistratutako lan hitzarmenen kopurua etengabe igo da, 697tik 1.042ra, Estatu eremukoen kopurua nahiko egonkor mantendu den bitartean, 343tik 353ra. Langile kopuruari dagokionez, ordea, EAE-n erregistratutako hitzarmenek eragindako langileen kopurua 456.200tik 307.895era jaitsi zen lehen urteetan, eta nahiz eta 2018tik aurrera hazkundera izan, ez da hasierako zenbakietara iritsi (2023an 404.952). Estatu eremuko hitzarmenek, aldiz, eragin handiagoa izan dute denboran zehar, 125.660 langileetatik 170.301ra igoz. Guztia kontuan hartzen badugu breaz, batez besteko eraginari dagokionez, Estatu eremuko hitzarmenek langile gehiagori eragiten diote, eta alde hori handitu egin da, batez besteko eragina 366 langiletik 482ra igoz; EAEn hitzarmenek, berriz, batez besteko eragin txikiagoa izan dute, nahiz eta 2014tik pixka bat erreperatu, 2012tik 655 langiletik 389ra pasa da.

URTE BAKOITZEAN INDARREAN DAUDEN HITZARMENEN KOPURUA ETA HITZARMEN HORIEK ERAGINDAKO PERTSONAK, ERREGISTROAREN ARABERA. EAE, 2012-2023



Iturria: Guk egina eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lan Harremanen Kontseilua

URTE BAKOITZEAN INDARREAN DAUDEN HITZARMENAK ERREGISTROAREN ARABERA ERAGITEN DIETEN LANGILE KOPURUARI, BATEZBESTEKOA. EAE, 2012-2023




Iturria: Guk egina eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lan Harremanen Kontseilua

2012-2023 bitartean, sektoreko hitzarmenei dagokienaz, EAE-n erregistratutako hitzarmenek babestutako langileen kopurua hasieran 370.595 zen eta, jaitsiera nabarmena izan zuen 2014-2015ean 206.629 ingururaino. Nahiz eta 2016tik igoera izan, ez da hasierako zenbakirik lortu, 2023an 290.147 izanik. Estatu eremuko sektoreko hitzarmenetan, berriz, langile kopuruak hazkunde jarraia izan du, 92.111tik 130.304ra. Enpresako hitzarmenei dagokienaz, EAE-n erregistratutako langileak 85.605etik 114.805era igo dira, eta Estatu eremukoak ere hazkundera izan dute, 33.549tik 39.997ra.

Datu hauek aurrekoekin erkatuz gero, argi ikusten da langileen egoera orokorrean, oro har, sektoreko hitzarmenek eragin handiagoa dutela.

SEKTOREKO EDO ENPRESAKO LAN HITZARMENPEKO LANGILEEN BILAKAERA, EREMUAREN ARABERA, 2012-2023. EAE



Iturria: Guk egina eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lan Harremanen Kontseilua

ATALAREN LABURPENA

1. Lan hitzarmenen bilakaera: 2002tik 2008ra 550-650 lan hitzarmen inguru sinatu ziren urtero, baina 2008ko krisi ekonomikoaren eraginez jaitsiera nabarmena izan zen (430eraino), eta 2012tik aurrera errekupeazio bat egon zen, batez ere 2012tik 2015era. Pandemiak jaitsiera txikia eragin zuen, baina 2021etik aurrera 700 hitzarmenetik gorako kopuruak mantendu dira.
2. Enpresa mailako eta enpresaz gaindiko hitzarmenak: Enpresa mailako hitzarmenak dira gehien sinatzen direnak, batez ere 2013tik aurrera 400etik 700 ingurura pasaz. Enpresaz gaindiko hitzarmenak gutxiago sinatzeaz gain, ez da krisiaren aurreko kopuruetara iristea lortu.
3. Langileen estaldura kopurua: 2002tik 2008ra 350.000-400.000 langile babestu ziren hitzarmenen bidez urtero. 2009tik aurrera susperraldi jarraia izan zen, 2020tik aurrera igoera handiagoak lortuz, 2023an 424.756 langile babestera iritsiz.
4. Gaur egun krisi finantzarioaren aurretik baino enpresaz gaindiko lan hitzarmen gutxiago sinatzen badira ere, une honetan sinatzen ari diren lan hitzarmen horiek langile gehiagori eragiten diete. Guztira soldatapeko langileen %85a babestua egotea lortu da.
5. Soldata igoerak: Soldata igoerak beti izan dira lan hitzarmenetan, baina krisi ekonomikoaren urteetan apaldu egin ziren igoera hauek. 2022 eta 2023an berriro igoera nabarmenak izan dira, %4tik gorakoak kasu guztietan.
6. Lan hitzarmenak non erregistratu diren arabera aztertuta 2012-2023 epealdian estatalizazio argi bat eman da, nahiz eta lehen kolpetik aurrera logika horri aurre egin eta eutsi egin zaion. Joera horretan sektoreko hitzarmenekin gertatutakoak izan du eragin nagusia.


HAUTESKUNDE SINDIKALAK

1. DELEGATU KOPURUA

Hego Euskal Herriko delegatuen banaketa 2016. urtetik 2023. urtera bitartean sindikatuen artean nola aldatu den aztertuta:


- ELA sindikatuak lidergo sendoa mantendu du eta %36 inguruan egon da, bere indarra areagotu ez arren.
- LAB sindikatua puntu eta erdi baino gehiago hazi da, lehen aldiz bigarren posizioa eskuratuz.
- Gainontzekoak jaitsi egin dira, bereziki CCOO (-0,6) eta Bestelakoak (-1,1).

HEH-KO DELEGATU BANAKETA, 2016 - 2023



Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuetatik abiatuta


HEH-KO DELEGATU ALDAKETA % ETA KOPURUA, 2016 - 2023



Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuetatik abiatuta

Bozken ehunekoa eta lortutako delegatuena alderatzen baditugu, ELA sindikatuak alde positibo nabarmena du, bozkak baino delegatu gehiago lortuz (ehunekoetan), 4,4-4,5 puntuko diferentziarekin. "Beste" sindikatuak eta LABek kontrako joera dute, hurrenez hurren 4,6-5,0 eta 0,5-1,0 puntu handiagoa. CCOO eta UGTren kasuan bi portzentajeak nahiko antzekoak dituzte.

SINDIKATU BAKOITZAREN HEH-KO BOZKA ETA DELEGATU % BILAKAERA, 2016 - 2023



Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuetatik abiatuta

2. HERRIALDEZ HERRIALDE DELEGATUEN DATUAK AZTERTUTA:


Araban jaitsiera nabarmena dute UGTk eta "Bestelako" sindikatuak. LABek, ELAk eta CCOOk igoerak izan dituzte, LABek handiena (+2,3)

Bizkaian LAB %15,1etik %16,0ra igo da. Igoera hori bereziki 'Bestelako' sindikatuen jaitsierarekin batera etorri da (%16,2tik %10,9ra jaitsi dira). Igoera horrekin eta CCOOren 1,7 puntuko jaitsierarekin, CCOOk okupatzen duen bigarren postua gertuago du LABek. ELAk indartsu jarraitzen du %40aren bueltan mantenduz.

Gipuzkoan ELAk, puntu bat gora eginez, bere lehen posizioa indartu du. LABek 1,4 puntu igo ditu bere bigarren posizioa %29,5ean indartuz. CCOOk puntu bat eta UGTk 0,7 egin dute behera.


Nafarroa Garaian da LABek hazkunde handiena izan duen herrialdea, +2,8. Horrek beste hiru sindikatueta hurbiltzea ekarri du, ELA eta CCOO mantendu egin baitira (0 eta -0,1) eta UGT jaitsi (-1,1).

HEHKO DELEGATU BANAKETA HERRIALDEKA, 2016-2023



Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuetatik abiatuta

DELEGATU BANAKETA (% ETA KOPURUA), HERRIALDEKA 2023




Iturria: guk egina, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren datuetatik abiatuta

3. BOZKA KOPURUAREN AZTERKETA

Jaso ditugun datuen arabera, sindikatu bakoitzak jasotako bozka kopuruak aldaketak izan ditu 2016tik 2023ra. Oro har, bozka kopuruak gora egin du (2016an guztira 365.210 ziren eta 2023an 387.423, hau da, 22.213 boz gehiago) eta horrek isla izan du sindikatuaren emaitzetan. ELA sindikatuak bozka gehien jaso ditu urtero, 2016an 114.196tik 2023an 123.228ra igarota. LAB eta CCOO sindikatuak ere gorakada txikiak izan dituzte, LABek 68.879 bozka izatetik 77.894 izatera eta CCOOK 70.567tik 71.738ra. UGT sindikatuak 52.624 bozkekin hasi zuen 2016 urtea eta 54.711 bozkara iritsi da 2023an. Bestelako sindikatuak gorabeherak izan dituzte, baina 59.852 bozka jaso dituzte azken urtean.


SINDIKATU BAKOITZAK JASOTAKO BOZKA KOPURUAREN BILAKAERA, 2016-2023



Iturria: guk egina, LAB sindikatua eta espainiar estatuko Diruzaintza Nagusiaren datuetatik abiatuz

Bozka kopuruari erreparatu beharrean, epealdi honetan egondako bozka alaketaren ehunekoari erreparatzen badiogu, aldeak nabariagoak dira. 2016tik 2023ra, sindikatu bakoitzak jasotako bozka kopuruak aldaketa esanguratsuak izan ditu portzentajeen. Guztira, bozka kopurua %6,1 igo da. LAB sindikatua izan da gehikuntza handiena izan duena, %13,1eko hazkundearekin. ELA sindikatuak %7,9ko hazkundea izan du, eta UGTk %4,0koa. CCOO sindikatuak hazkunde txikiena bat izan du, %1,7koa. Bestelako sindikatuak aldaketa apalagoa izan dute, %1,5eko igoerarekin.

SINDIKATU BAKOITZAK JASOTAKO BOZKA KOPURUAREN ALDAKETA (%), 2016-2023




Iturria: Espainiar estatuko lan eta ekonomia sozialeko ministeritza. Greba eta Itxiera Patronalen Inkesta

4. ORDEZKARITZA SINDIKALAREN BABESA

Bestalde, sindikatuen ordezkarietza duden langile kopurua ere igo da. 2016an ordezkarietza sindikala zuten 538.401 langile izatetik, 2023an 587.804 izatera igaro dira (%43,4tik %45,5era). Eskubidea duten baina ordezkarietzarik ez dutenen kopurua 539.112ra iritsi da, baina portzentajea pixka bat jaitsi da (%42,4tik %41,7ra). Eskubiderik ez dutenen kopurua apur bat jaitsi da, 2016ko 175.112tik 2023an 164.371ra (%14,1etik %12,7ra).

ORDEZKARITZA SINDIKALAREN BABESPEAN DAGOEN LANGILE KOPURUA, 2016-2023




Iturria: guk egin, LAB sindikatua eta espainiar estatuko Diruzaintza Nagusiaren datuetatik abiatuz

61

Nafarroa Garaiko ordezkarietza sindikalak 2016 eta 2023 urteen artean izaniko bilakaeran harreta jarritz, ordezkarietza sindikala duten langile kopuruak izaniko gorakada nabarmenduko genuke, ordezkarietza sindikalik gabeko langileenak behera egin duen bitartean. Lurraldearen berezko ezaugarriez gain, lehia sindikalak hauteskundearen ugaritzea ekarri duela esan genezake.

NAFARROA GARAIO ORDEZKARITZA SINDIKALAREN BABESEAN DAGOEN LANGILE KOPURUA 2016-2023



Iturria: guk egin, LAB sindikatua eta espainiar estatuko Diruzaintza Nagusiaren datuetatik abiatuz

ATALAREN LABURPENA

Datu hauek erakusten dute ELA eta LAB sindikatuen indar handia Hego Euskal Herrian. Bestetik, CCOO eta UGT sindikatuak, nahiz eta presentzia ona izan, jaitsi egin dira. 'Bestelako' sindikatuen egoera ahulagoa da orain.


Joera hauekin, LABek lortu du bigarren sindikatua izatea Hego Euskal Herri osoan, Gipuzkoan bigarren lekuan sendotuz, Araban hirugarren lekura igota, Bizkaian bigarren posizioa hurbilduta eta Nafarroa Garaian hirugarrenera.

AFILIAZIOA

AFILIAZIOAREN EZAUGARRITZEA

1 8 urtetik gorako Hego Euskal Herriarren %17,1ak dio gaur egun sindikatu batean afiliatuta dagoela. Beste %22,2k, orain ez baina inoiz egon dela. %60,7 ez da inoiz afiliatuta egon.


SINDIKATUEKIKO HARREMANA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Herrialdeka aztertuta, Bizkaia ageri da egun afiliazio kopuru altuenarekin eta ondoren Araba, biak %18 inguruan. Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia %15 inguruan dabilta.


SINDIKATUEKIKO HARREMANA, HERRIALDEKA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Proportzio hauek garai antzekoan egin diren beste inkestetan agertzen diren zenbakien antzekoak dira. Adibidez, Lehendakartzako PSK egindako "Kultura demokratikoa" inkestak afiliazioa %13an eta inoiz afiliatuta egondakoak %21ean estimatzen zituen.


SINDIKATUEKIKO HARREMANA, HERRIALDEKA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Datu hauen arabera, gizonezkoak emakumezkoak baino afiliatuago daude sindikatuetan. Gizonezkoen %18,3 gaur egun sindikatu batean daude, emakumezkoen %16arekin alderatuta. Gainera, gizonezkoen proportzio altuago bat izan da noizbait afiliatua, nahiz eta gaur egun ez izan (%27), emakumezkoen %17,6rekin alderatuta. Emakumezkoen %66,4 inoiz ez da sindikatu bateko kide izan, gizonezkoen %54,7rekin alderatuta.


SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, SEXU-GENEROAREN ARABERA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Sindikatuaren afiliatze-tasa adin-taldearen arabera aldatzen da. 45-64 urte bitarteko pertsonak dira sindikatuetan gaur egun gehien afiliatuta daudenak (%24,9), eta gazteenak (18-29 urte) gutxiak (%9,5). Bestalde, 65 urtetik gorakoaren artean jende gutxi dago gaur egun afiliatuta (%4,7), baina horietako asko sindikatuaren bateko kide izan da lehenago (%31,4). Gazteen %82,4k dio inoiz ez dela afiliatu sindikatu batean. Hau da, afiliazio sindikala adinarekin handitzen da, baina erretiroaren ondoren murriztu egiten da.


SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, ADINAREN ARABERA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Datuen arabera, hizkuntza-gaitasunak sindikatueta afiliazioan nolabaiteko eragina izan dezake. Euskara ulertu eta hitz egiten dutenen artean, gaur egun sindikatu kide diren pertsonen proportzioa altuagoa da (%21,9) hizkuntza ulertzeko zailtasunak dituztenekin alderatuta (%13,1). Halaber, sindikatueta inoiz afiliatu ez diren pertsonen kopuru handiena euskara ulertzen eta hitz egiten dutenen artean ematen da (%63,8).


SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuakiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Jaiolekuaren arabera sindikatueta afiliazio-tasetan aldeak daude. Araban jaio diren pertsonen afiliazio sindikalik altuena dute gaur egun (%22,1), eta Bizkaian ere antzeko tasa dute (%20,2). Gipuzkoan (%18,7) eta Nafarroa Garaian (%15,9) afiliazioa zertxobait baxuagoa da. Espainiako beste herrialdeetako jatorria dutenen artean, gaur eguneko afiliazioa askoz baxuagoa da (%10,7), eta Espainiako Estatutik kanpo jaio direnen artean ere antzekoa da (%12,0).


SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, JAIOLEKUAREN ARABERA. HEGO EH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuakiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Diru-sarreraren arabera ere, sindikatueta afiliazio-tasak aldatu egiten dira. Diru-sarrera ertain-altuak dituzten pertsonen afiliazio handiagoa dute gaur egun sindikatueta. 1.801 € eta 2.400 € artean irabazten dutenen afiliazio-tasa handiena dute (%27,6), eta 1.201 € eta 1.800 € bitartekoek ere afiliazio-tasa handia dute (%21,7). Diru-sarrera txikiak dituztenen artean, sindikatueta afiliazioa askoz txikiagoa da; diru-sarrerarik ez dutenen artean, adibidez, %3,6 bakarrik dago gaur egun afiliatuta. Diru-sarrera altuenak dituztenak ere, batezbestekotik behera daude afiliatuta.

SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, DIRU-SARREREN ARABERA. HEGO EH, 2023




Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuakiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Lan egoeraren arabera ere, sindikatuetakoz afiliazio-tasetan aldeak daude. Lan ordaindua dutenen artean ematen da afiliazio-tasa altuena (%27,7), eta "beste egoera bat" dutenen artean ere nahiko altua da (%23,1). Langabezia daudenak afiliazio-tasa baxuagoa dute (%10,6), ikasten ari direnak (%6,4) eta etxeko lanak egiten dituztenak (%3,7) ia ez dira sindikatueta afiliatzen. Jubilatua, pentsiodun eta ezinduen artean afiliazio-tasa %5,6koa da.

Aldiz, bai erretiratueta, bai langabetueta inoiz afiliatuta egon direnen proportzioak altuenak dira.

SINDIKATU BATEKO KIDE IZATEA, LAN-EGOERAREN ARABERA. HEGO EH, 2023



ATALEKO LABURPENA

Afiliatuta daudenak: 18 urtetik gorako Hego Euskal Herriarren %17,1ek dio gaur egun sindikatu batean afiliatuta dagoela eta %22,2k, orain ez baina inoiz egon dela.

Herrialdeka afiliazioa: Bizkaia da sindikatueta afiliatze-tasa altuena duen lurraldea (%18), Araba hurrengoa (%18), eta Gipuzkoa eta Nafarroa Garaia apur bat baxuago daude (%15 inguru).

Generoa eta afiliazioa: Gizonezkoek emakumezkoek baino afiliazio altuagoa dute; gizonezkoen %18,3 dago afiliatuta, emakumezkoen %16.


Adin-taldeak: Afiliatze-tasa adinaren arabera da, 45-64 urte bitartekoak sindikatueta gehien afiliatuta daudenak izanik (%24,9), eta gazteenak gutxien afiliatuta daudenak (%9,5).

Hizkuntza-gaitasuna: Euskara ulertu eta hitz egiten dutenen artean, sindikatueta afiliatuta dauden pertsonen proportzioa altuagoa da (%21,9), hizkuntza ulertzeko zailtasunak dituztenekin alderatuta (%13,1).

Diru-sarrerak eta lan egoera: Diru-sarrerak eta lan egoerak sindikatueta afiliazioan eragiten dute; diru-sarrera ertain-altuak dituztenek (%27,6) eta lan ordaindua dutenek (%27,7) dute afiliazio tasa altuena. Ostera, langabeen (%10,6), ikasleen (%6,4) eta etxeko lanak egiten dituztenen (%3,7) afiliazioa askoz baxuagoa da.

SINDIKATUEKIKO ATXIKIMENDUA

Datuen arabera, Hego Euskal Herriko biztanleriaren artean ELA sindikatuak du atxikimendu edo begikotasun handiena, batez besteko 4,35 puntu lortzen baititu (0 eta 10 artean). Ondoren, LAB sindikatuak jarraitzen du 4,25 punturekin. UGT eta CCOO sindikatuen atxikimendua baxuagoa da, hurrenez hurren 3,41 eta 3,64 puntuko batez bestekoekin.




Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

Gaur egun sindikatu batean afiliatuta dauden pertsonen artean hobekien baloratuak daudenak ELA eta LAB dira, hurrenez hurren 5,2 eta 5,1 puntu lortuz. Afiliatuta egon diren baina orain ez daudenek ere ELA (4,5) eta LAB (4,3) sindikatuak hobeto baloratzen dituzte, CCOO (4,0) eta UGT (3,8) sindikatuekin alderatuta.

Inoiz sindikatuari afiliatu ez direnen artean, berriro ere ELA (4,0) eta LAB (3,9) sindikatuak CCOO (3,5) eta UGT (3,3) sindikatuek baino puntuazio hobekia lortzen dituzte, baina kasu honetan tartea estuagoa da eta oro har, baxuagoa da.

BEGIKOTASUN SINDIKALAK, SINDIKATUEKIKO HARREMANAREN ARABERA. HEH, 2023




Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

CCOO eta UGT sindikatuek eragiten duten begikotasun negatiboa handiagoa da. Izan ere, herritarren %54,7k eta %58,5ek (CCOO eta UGTren kasuan, hurrenez hurren) 0 eta 4 arteko balorazioa ematen diete. Aldiz, sindikatu hauek oso jende gutxi baloratzen ditu 9 eta 10 arteko puntuazioekin, hurrenez hurren %2,8 eta %2,2.

ELA eta LAB sindikatuek ere badute kritika nabarmena, baina apur bat apalagoa: ELAren kasuan herritarren %44,5ek eta LABren kasuan %46,3k balorazio negatiboa egiten dute, 0-4 artean puntuatuz. Bestalde, 9 eta 10eko balorazio altuetan, ELA (%4,9) eta LAB (%6,9) CCOO eta UGT sindikatuen gainetik daude.

SINDIKATU BAKOITZAK ERAGITEN DUEN BEGIKOTASUN PROPORTZIOA (%), OETA 4 ARTEAN ETA 9 ETA 10 ARTEAN. HEH, 2023.



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023


Logikoa den bezala, LABekiko geroz eta atxikimendu altuagoa izan, LABen balorazioa altuagoa ikusten da, eta beste sindikatuekiko txikiagoa. LAB gehien baloratzen dutenak (9-10), ELA dute bigarren sindikatu bezala gustukoena, 2,8 puntuko tartearekin. CCOO eta UGTk ez dute 3koa gainditzen.

LAB balorazio altuan dutenak (7-8), LAB jarraitzen dute izaten lehen sindikatu gisa (7,4 batez beste) eta ELA bigarren lekuan, baina tarte txikiago batera (0,8). CCOO eta UGT ere urruti mantentzen dira, baina gertuago.

LAB 5 eta 6 artean baloratzen dutenen artean, ordea, ELAk aurea hartzen du, hamarreko batengatik bada ere (5,5 ELAk; 5,4 LABek).

LABi balorazio oso txikia ematen diotenen artean, nabarmentzekoa da gainontzeko sindikatuek nota hobea ateratzen dutela, baina haiek ere nota txarra jasotzen dutela.

LABEKO ETA GAINONTZEKO SINDIKATUEKIKO HURBILTASUNA. HEH, 2023




Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuekiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

LAB sindikatuarekin hurbiltasun handiena dutenen ideologia politikoak euskal nazionalismoa, ekologismoa, feminismoa eta euskaltzaleasuna dira, guztiak 7-10 tarteko puntuazio altuak lortuz. Euskaltzaleak eta ekologistak, batez ere, 9-10 tartekoen artean (8,7 eta 7,7 puntu lortu dituzte), hurbiltasun handiena adieraziz.

Aitzitik, espainiar abertzaleek puntuazio oso baxuak lortzen dituzte (9-10 tartean 1,4), LABen ideologiatik urrun daudela adieraziz.

Oro har, LABekiko balorazioa jaitsi ahala, gainontzeko eskaletan ere jaitsi egiten dira. Ekologismoa da gehien eusten duena, eta beraz, gaur gaurkoz transbertsalena edo tentsio gutxien sortzen duena.

LABZALEEN POSIZIONAMENDU IDEOLOGIKOAK. HEH, 2023



Iturria: Hego Euskal Herriarren sindikatuakiko hautemateak eta iritzi sozialak, 2023

ATALAREN LABURPENA

Sindikatuaren atxikimendua: Hego Euskal Herriko biztanleriaren artean ELA sindikatuak du atxikimendu handiena, batez besteko 4,35 puntu lortuz. LAB sindikatuak hurbil agertzen da (%4,25), UGT (%3,41) eta CCOO (%3,64) aldiz, beherago kokatzen dira.

Afiliatuen balorazioa: ELA eta LAB dira afiliatuta dauden pertsonen artean hobekien baloratuak, hurrenez hurren 5,2 eta 5,1 puntu lortuz, eta baita afiliatuta egon diren baina orain ez dauden pertsonen artean ere.

Inoiz sindikatuaren batean afiliatu ez direnek ere ELA (4,0) eta LAB (3,9) sindikatuak baloratzen dituzte CCOO (3,5) eta UGT (3,3) sindikatuak baino puntuazio hoberekin. Hala eta guztiz ere, puntuazioak orokorrean baxuagoak dira eta sindikatuaren arteko tartea estuagoak.

ELAk eta LABek lortzen dute jendartearen erdiak baino gehiagok aprobatua ematea (%55,5 eta %53,7 hurrenez hurren). CCOO eta UGT, aldiz, ez dira erdira iristen (%45,3 eta %41,5).

Ideologia politikoaren eragina: LAB sindikatuarekiko hurbiltasunak lotura du ideologia politikoarekin, euskal nazionalismoa, ekologismoa, feminismoa eta euskaltzaleasunarekin. Geroz eta hurbiltasun gehiago LABekiko, geroz eta puntuazio altuagoa eskala ideologiko horietan. ELAren kasuan eragin hori ez da antzematen.

LABEKO ATXIKIMENDUAREN ARABERAKO IRITZI SOZIALAK

Inkestatuei guztira 29 esaldi eman zaizkie haiekiko adostasun maila adieraz zezaten (esaldi batzuk soilik herrialde batzuetan egin dira). LABekiko hurbiltasun mailaren arabera aztertzen baditugu iritzi horiek (urrunak 0-4, ertaina 5-6, hurbila 7-8 eta oso hurbila 9-10), hauek dira azpimarratuko genituzkeen ondorio batzuk:

Oro har, hiru profil hurbilenek ezaugarri ezberdinak dituzte:

LABekiko oso hurbila: Profil hau, gizarte arloetan eta irizpide sozialetan konprometituagoa da, eta hainbat gairi buruz, hala nola, ingurumenari, berdintasunari eta gizarte justiziar buruzko iritzi sendoak ditu.

LABekiko hurbila: Profil hau, gizarte aldaketarako prest dago, baina gaiaren arabera iritzi aldakorragoa du.

LABekiko ertaina: Profil honek iritzi moderatuagoak ditu. Gizarte arloetan izandako aurrerapenekiko iritzi apalagoak eta kontserbadoreagoak ditu.

Zehatzago azalduta,

Oso hurbila:

- Euskararen eta hezkuntzaren defentsa: euskararen eta hezkuntzaren defentsa sendoa du, euskara Nafarroa osoan ofiziala izatea eta D eredua lehenestea defendatuz.
- Gizarte politikak: Osasungintza publikoa indartzea, zerbitzu publikoak hobetzea eta lan baldintzak hobetzea lehenesten dituzte, emakumeek lan eremuan ere barne hartuz.
- Ingurumenarekiko kontzientzia: Ingurumenari buruzko iritzi sendoak dituzte, eta autoen erabilera murriztea eta industria anitzagoa izatea defendatzen dute.

Hurbila

- Aldaketa sozialak onartzea: Profil honek aldaketa sozialetarako prestutasuna adierazten du, eta gizarte politika eta ekintza ezberdinen aldeko posizioa du.
- Euskara eta hezkuntza: Euskararen aldeko iritzia adierazten dute, baina moderatuagoak dira, D eredua sostengatzea nahikoa iruditzen zaielako.
- Gizarte segurtasuna: Segurtasuna bermatzeko polizia gehiago izatea defendatzen dute, gizarte arriskuei aurre egiteko.

Ertaina


- Profil honek iritzi moderatuak ditu, gizarte aldaketari buruzko iritzi apalagoa adierazten du.
- Euskararen garrantzia: Euskararen garrantzia onartzen dute, baina ez diote lehentasun handirik ematen.
- Oinarritzko zerbitzu publikoak: Osasun publikoa eta zerbitzu publikoak hobetzea onartzen dute, baina ez dute iritzi irmo bat adierazten.

IRITZI SOZIAL ETA SOZIOLABORAL OROKORRAK

EAEn sindikatuekiko konfiantza maila tarteko maila batean dago. Enpresarien azpitik eta alderdi politikoen oso gainetik, beste bi eragile aipatzearren. Konfiantza hori krisi garaian jaitsi zen eta ondoren errekeratzen joan da, 1999tik bere balio altuenetara iritsi arte.

Jarraian zenbait instituzioren konfiantzari buruz galdetu nahi nizuke. Aipatuko dizudan bakoitzarekiko, esadazu, mesedez, gehienbat konfiantza duzun ala gehienbat ez duzun konfiantzarik

LANPOSTUAREN EZAUGARRI BATZUEI EMANDAKO GARRANTZIA



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Euskal Soziometroa 83, 2024.

Lanpostu egonkorra eta ordutegi ona dira gehien baloratutako faktoreak, jendeak oso garrantzitsutzat jotzen baititu.


Lana gizaratearentzat baliagarria izatea eta lan interesgarria ere garrantzitsuak dira, baina lehentasunezko garrantzia gutxiago jaso dute.

Soldata altua izatea da gutxien baloratu dena, baina hala ere, balorazio altua du eta gainera 2016tik, ordutegi ona izatearekin batera, gehien hazi direnak dira.

Ezaugarri horiekiko poztasunari dagokionean, poztasun altuena egonkortasunarekin dago (%41 oso pozik) eta baita ordutegiarekin, lanaren interesarekin eta baliagarritasunarekin. Azken hiru faktore hauekin oso pozik daude herritarren %37, %36 eta %33.

Soldatarekin ordea, oso pozik daudenak %17 dira.

GAUR EGUNGO LANPOSTUAREN EZAUGARRI BATZUEKIKO POZTASUNA




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Euskal Soziometroa 83, 2024.

Datu hauek erakusten dute langile askok lan orduak ez handitzea nahiago dutela, nahiz eta irabaziak handitu nahi dituzten. Horrela, bizitza eta lana orekatu nahi dute.

Diru gehiago irabazteko ordu gehiago lan egin nahi dutenak, jardun osoan ez dauden herritarrek dira nagusiki.

DENBORA ALA SOLDATA NAHIAGO IZATEA




Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.
Soldata-arrakala eta genero-arrakalak lan-merkatuan 2021eko otsaila.

Lan egiten den enpresan edo erakundean, emakumeak kaltetzen dituen gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasunak egongo balira, gehienek sindikatuarekin harremanetan jartzea aukeratuko lukete (%35) eta are gehiago emakumeen artean (%37). Gizonen artean, lehen aukera honekin batera lankideekin hitz egitea ere parean dago.

Nagusiarekin zuzenean hitz egitea emakumeek ere gehiago hautatzen dute, gizonek baino.

EGINGO LUKEENA NORBERE LANTOKI EDO ERAKUNDEAN SOLDATA-ARRAKALA BALEGO



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea – Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

Soldata-arrakala eta genero-arrakalak lan-merkatuan 2021eko otsaila.

ATALAREN LABURPENA

Sindikatuetikiko Konfiantza: EAEn sindikatuetikiko konfiantza tarteko mailan dago, enpresarien azpitik eta alderdi politikoen gainetik. Konfiantza hori krisi garaian jaitsi bazen ere, 1999tik aurrera errekuaratzen joan da, balio altuenetara iritsiz.

Laneko Faktoreak: Langileek lanpostu egonkorak eta ordutegi onak baloratzen dituzte gehien, lanaren baliagarritasuna eta interesgarria izatea ere garrantzitsuak diren arren. Soldata altua izatea gutxien baloratu den faktorea da, baina azken urteetan, ordutegi ona izatearekin batera, gehien hazi direnak dira.

Soldata Desberdintasunak eta Ekintza: Emakumeek gizonak baino gehiago aukeratzen dute sindikatuarekin harremanetan jartzea soldata desberdintasunak baldin badaude, izan ere, emakumezkoen %37k hala egingo luke. Gizonentzat, lankideekin hitz egitea ere aukera garrantzitsua da. Aldiz, emakumeen artean nagusiarekin zuzenean hitz egiteak indar handiagoa du gizonen artean baino.

